



Plateruenako bazkideek kooperatiba desagitea erabaki dute asteen. Hamarkada biko ibilbidean ziklo aldaketa bat izango da. Eraikina Durangoko Udalaren esku geratuko da. Proiektuan parte hartu dutenei eskerrak emateaz gainera, etorkizunera begira ipini dira. • 24

Ziklo baten itxiera

"Bentzeno mailak neurtzea ez da ohikoa, legedian nahiko berria da"

Durango • Durangoko Udalak joan zen egunean emandako prentsaurrekoak alarmak piztu zituen. Azaldu zutenez, Tecnaliak egindako ikerketa baten arabera bentzeno maila oso altuak detektatu zituzten egurasean. Airearen kalitatea hobetu guran, hatsa nondik zetorren detektatzeko ikerketaren emaitzak eman zituzten.

Substantzia kutsagarri hori lurreta ingurutik zetorrela ondorioztatu zuten. Baina hau ez da Durangoko Udalak egindako ikerketa batean bentzenoa agertzen den lehenengo aldia. Aitor Larruzea udaleko ingurumen teknikariak gai honetan aurreapausoak emateko elkarlanaren beharizana azpimarratu du • 4



'Jantzari' estreinatuko dute lurretako plazan

Iurreta • Emanaldi bi egongo dira urriaren 9an, 20:00etan eta 22:00etan. • 25



Urriaren 1etik 31ra arte
5.URTEURRENA
Opari bereziak

SCHMIDT

Murueta Auzoa z/g
Eroski Merkatal Zentroa
48220 Abadiño
www.homedesign.schmidt

SUKALDEAK - ETXEA - BAINUGELAK



Bentzeno, tolueno eta estireno emisio pikoek lurretako lurretan dute jatorria, saihebidetik Bernara (Zornotzara) arteko tartean.

Haize-orratza ipar-mendebaldera begira ipini da

Tecnaliaren txostena publiko egin eta luze barik heldu dira bateko zein besteko eragileen erreakzioak. Durangoko Udalak Jaurlaritzari eta lurretako Udalarari helarazi die txostena. Herritarren eskura ere ipini du, udaleko web orrian bertan

DURANGALDEA • EKAITZ HERRERA

Haizeak nora, ipar-orratzak hara. Bentzeno pikoak ipar-mendebalde-tik datozela ebatzi du Tecnaliaren txostenak, eta Durangaldeko herritarrek hara begira ipini dira asteon. Haizeak aspaldian lozorroan egondako kezkak hauspotu ditu eta norabide guztietako erreakzioak ekarri ditu eskualdeko politikagintzara. Bien bitartean, Durangoko Udalak txostena publiko egin du. Bere web orrian ipini du eskuragarri eta Eusko Jaurlaritzaren eskutik ere ipini du. Iurretako Udalak, bestalde, premiazko bilera eskatu dio Ingurumen Sailari. Inaki Totorikaguena alkateak bere "laguntza osoa" berretsi du, "azterlanean ageri direnak identifikatzeko eta

horiek ezabatzeko neurri egokiak aztertzeke". Iurretako EH Bilduk "ausardiaz" jokatzeko deia egin dio Totorikaguena alkateari. Herritar guztiek aire bera arnasten dutela eta askok "kezka handia" dutela esan du koalizio subiranistak. Eguaztenean egindako udalbatzan gaia lantzeko batzorde berezi bat sortzea eskatu zioten alkateari.

Bentzeno emisioak nondik datozten ikertzeke arduratu Eusko Jaurlaritzaren baitan dago momentu honetan. Oraingoan, ikusteko dago ea zein bide hartuko duen auziak. Emisio pikoak nondik datozten aztertzea izan daiteke pauso bat. Eta emisio horien jatorria identifikatu eta horiek legearen bidez are eta gehiago mugatzea izan daiteke pau-

so handiago bat. Durangairea plataformak bigarren eszenatoki horren alde egin du. Eusko Jaurlaritzari eskatu dio indarrean dagoen araudia aldatzeko eta analisi gehiago egiteko. "Eskualdeko airearen kalitatea ona eta osasunerako kaltegarriak diren substantziarik gabea dela" ziurtatu gura du Durangaireak.

Baina zer dio legeak eguratseko bentzeno mailari buruz? Bada, ezer gutxi. Europar Batasunak 2004an sartu zuen indarrean eguratseko bentzeno mailen gaineko muga. Horren arabera, urte oso batean eta batez beste, ezin dira metro kubiko 5 mikrogramo baino gehiago egon. Espainiako gobernuak 2011n aplikatu zuen Europako legea, eta indarrean sartu zuen errege-

dekretu bidez. Bestalde, airearen kalitatea neurtzen duen Durangoko estazioak iazko ekainean ekin zion bentzeno neurtzeari. San Roken kokatutako neurgailuak ez zuen bentzenorik neurtzen ordura arte. Zornotzan ere bentzeno maila neurtzen da (Zelaieta parkean kokatutakoak neurtzen du. Boroan eta Montorran kokatutakoak ez).

Oraingo kezka Tecnaliaren txostenak piztu du, baina aurretik ere egon izan dira antzera bateko kezkak. Iazko martxoan, Eusko Jaurlaritzak eskakizun bana egin zien Durangoko fundizio buri bentzeno isuriak murrizteko. Bentzeno arrastoak lege-mugaren azpitik zeudela, baina denboran mantentzen zirela ebatzi zuen Jaurlaritzak.

Erreakzioak



"Honen aurrean ez gara geldirik egongo; Airearen Kalitate Mahaia osatuko dugu hurrengo egunetan"

DURANGOKO UDAL GOBERNUA

Iurretako Udalaren eta Jaurlaritzaren "esanetara" dagoela esan du Durangoko Udalak. Bestalde, Airearen Kalitate Mahaia osatuko duela iragarri du. Egun gutxi barru osatuko dute.



"Airearen kalitatearen azterketa hau aurreko udal gobernu taldeak enkargatu zion Tecnaliari"

DURANGOKO EAJ • EAJk esan

du aurreko udal gobernuak enkargatu zuela airearen kalitatea neurtzeko azterketa. (2019ko apirilean enkargatu zion). "Alarmismoan" aritzea leporatu dio oraingo gobernuari.



"Laguntza osoa berresten dugu azterlanean ageri direnak identifikatzeko eta horiek ezabatzeko"

IURRETAKO UDAL GOBERNUA

Iurretako Udalak premiazko bilera eskatu dio Ingurumen Sailari. "Laguntza osoa" eskaini dio, eta berretsi du haregaz jarraituko duela "lankidetzan", airearen kalitatea hobetzeko.



"Jaurlaritzari eskatzen diogu isurketen araudia aldatzeko eta analisi gehiago egiteko"

DURANGAIREA

Plataformaren esanetan, "argi eta garbi" frogatu da emisio kaltegarriak egon izan direla. Jaurlaritzari eskatu dio isurketen araudia aldatzeko eta analisi gehiago egiteko.

Gakoak

1

Bentzenoa

Petrolioaren konposatueterikoa bat da. Industria kimikoan erabiltzen da, lubrikatzaileak, gomak eta zuntzak fabrikatzeko, besteak beste. Emisioak ibilgailu motordunetatik eta industria arloko konbustioetatik etorri ohi dira. Munduko Osasunaren Erakundeak hainbat minbizigaz lotzen du bentzenoa.

2

Lege herrena

Haren emisioak apenas daude araututa. Ezarrita dagoen arau bakarra da urte oso batean, batez beste, 5 mikrogramo bentzeno erregistratu daitezkeela metro kubiko bakoitzeko.

3

780 µg/m³

Tecnaliaren ikerketan identifikatutako bentzeno piko maximoa. 2019ko abenduaren 2an, metro kubikoko 780 mikrogramo bentzeno erregistratu ziren Durangoko erdigunean, Juan Mari Altuna kalean

4

100 µg/m³

Beste kopuru esanguratsu bat. Oraingoan, 2019ko urriaren 4an erregistratua. Kale berean jaso zuten datua, Juan Mari Altunan. Metro kubikoko 100 mikrogramo bentzeno atzeraman zituzten egun hartan.

5

Iurretatik bai; ez Zornotzatik

Bentzenoa mendebaldeko eta ipar-mendebaldeko haizeekin heltzen da Durangora. Zornotzan ere ipini zituzten sentso-reak, emisioak handik etorri ote zitezkeen aztertzeke. Baina Tecnaliako azterketak argi dio emisioak Iurretatik datozela, saihebidetik Bernara bitarteko industrialdetik hain zuzen ere.

“Guztiz beharrezkoa dugu enpresa eta erakunde guztion arteko elkarlana, kutsadura atmosferikoak mugei buruz ez du ezer ulertzen eta”

Tecnaliak kaleratutako Durangoko airearen kalitatearen inguruko azterketak zein ekarpen egin dio orain arte mahai gainean izan dugun informazioari? Durangoko ingurumen teknikariak sakon ezagutzen du gaia. Pausoak elkarlanean emateko beharrizana azpimarratu du Aitor Larruzeak



Aitor Larrueza Abad
Durangoko ingurumen teknikaria

Durango | 1975

DURANGO • JONE GUENETXEA

Tecnaliak Durangoko airearen kalitatearen inguruan kaleratu duen txostenaren ondorioak ulertzeko, testuinguru osoa ezagutzea komeni da. Aitor Larruzea Durangoko Udaleko ingurumen teknikariak sakon azaldu ditu ondorioak.

Orain arte Durangoko airearen kalitatearen inguruan genekienetik, zein datu berri eman du Tecnaliako txostenak? Zein da txosten honek aurrera begira lanean jarraitzeko egiten duen ekarpena?

Gure herriaren kokapenak (errepidez eta autobidez inguratuta) eta eskualdean ditugun enpresen jarduerak eragina izan dute beti bertoko eskualdeko aire kalitatean. Historikoki, eta 2006. urtera arte, gure arazorik kezkagarriena partikula materialak izan dira. Horren ondorioz, Durangoko Udalak airearen kalitatea hobetzeko erantzukizuna hartu zuen, eta 2007. urtean gure udalak airearen kalitatea hobetzeko plana onartzea erabaki zuen, aho batez. Horrek eragina izan zuen, bai mugikortasun arloan, bai Durangoko enpresen kontrolean, eta material partikulen mailaren jaitsiera nabarmen jaitsi zen. Gaur egun, Durangon partikula materialen maila kontrol baten menpe

dugula esan dezakegu. Durangok airearen kalitatea hobetzeko hartutako erantzukizunak honi buruz beste hainbat azterketa egitea eragin du. Datu hauek publikoak dira eta gure webgunean daude (durango.eus).

Bestalde, azken azterketa hau kiritsean zentratu da; hau da, historikoki neurtu izan diren kutsatzaileak alde batera utzita, konposatu organiko lurrunkorretan zentratu da, eta momentu puntual batzuetan bentzeno maila altuak ditugula izan da datu berri edo esanguratsuena. Ikerketa honen bitartez, argi geratzen da gai honetan guztion arteko lankidetzaz ezinbestekoa dela eskualdean.

“**Guk momentu puntualak neurtu ditugu. 15 minutuko tarte konkretu batzuk**”

Bentzeno piko altuak aipatzen ditu Tecnaliak bere txostenean. Maila altu horiek egun askotan detektatu al dira?

Sistema honegaz (urritik martxora

bitartean) 32 bat abisu izan ditugu, baina, gero, herritar batzuei hatsaren ezaugarriei buruz galdetzen zitzairen. Kasu askotan, hatsak ez zuen zerikusirik bilatzen genbiltzan usain txarrekin (adibidez, paper-fabrikako hatsa edo fundiziokoa aipatzen zigitenean). Horietatik 7k izan dituzte bilatzen genbiltzan hatsaren ezaugarriak. Eta horietatik 4 gertaeratan izan ditugu bentzeno maila esanguratsuak.

Egun batzuetan bentzeno piko altuak izanda ere, urteko batezbestekoaren azpitik dago Durango. Zelan ulertu daiteke hori?

Aztertu ditugun 172 kutsatzaileetatik (konposatu organiko lurrunkorrek) bentzenoa da airearen kalitateko legedian muga maila daukan bakarra. Muga horrek urteroko batezbestekoa ezartzen du (5 mikrogramo metro kubikoko); hau da, 365 egunen eta 24 orduen batezbestekoa. Guk momentu puntualak neurtu ditugu. 15 minutuko tarte konkretu batzuk. Horrek ez du esan gura momentu guztian hats edo maila hori dugunik. Adibidez, Durangoko airearen kalitatea neurtzen duen estazioaren (San Rokekoa) arabera, bentzenoaren batezbestekoa 0,58koa izan zen 2019an. Hala ere, momentu pun-

tualetan pikoak ditugu, azterketaren arabera.

Durangon ez da lehenengo aldia bentzeno maila altuak detektatzen direna.

Hala da. Orain dela urte bi, Eusko Jaurlaritzak airearen kalitatea neurtzeko ibilgailu mugikorra ipini zuen Durangon. Eta neurketa horiek bentzeno maila esanguratsu batzuk erakutsi zituzten. Horren eraginez, Durangoko enpresa batzuetan neurriak hartu zituzten, eta badakigu inguruko enpresekin antzerako pausoak ematea aurreikusita zegoela. Esan beharra dago bentzeno mailak neurtzea ez dela ohiko gauza bat, legedian nahiko berria dela hau neurtzea, eta Europako direktibek ezartzen dute honen neurketak zenbateko ratioa izan behar duen. Hau da, Durangaldeko airearen kalitatea neurtzeko, Durangoko estazioa erabiltzen da, ez dago herri bakoitzean estazio bat. Beraz, garrantzitsua da denon artean gai hau jorratzea. Berdin gertatzen da bentzenoagaz. Estazio guztiek ez dute bentzenoa neurtzen. Legedia errespetatuz, estazio batzuetan baino ez da egiten. Eusko Jaurlaritzarena da honen eskumena.

Bentzenotik aparte, zein beste osagai detektatu dira?

Bentzenoagaz lotuta edo haregaz zerikusia izan dezaketen toluenoa eta estirenoa agertu dira. Ematen du euren artean erlazioren bat dagoela beti, eta, beraz, baliteke jatorri bera izatea.

Txostenak kutsatzaileak izan daitezkeen enpresen inbentario bat jasotzen du, eta emisioak inguru batean kokatzen ditu. Zein ingurutan hain zuzen?

Tecnaliaren txostenaren arabera, hats horregaz zerikusia duten gertakariak Durangoko ipar-mendebaldetik datoz.

Txostenaren ondorioek haxe diote: “... ikusten dugunez, emisio iturri nagusia konbustio erretzea litzateke, eta horrek Durangon aldika eragozpenak sortu ditzake”. Zer esan gura du horrek?

Prozesu industrialetan prozesu ezberdinak eta oso konplexuak daude. Disolbatzaileak erabiltzen dira, konbustio erretzeak daude,... eta, beraz, konposatu lurrunkorrek sortzen dira. Askotan, horrelako kasuak prozesu bat aldatzean edo erabiltzen den produktu bat aldatzean datoz, eta ezjakintasunagaitik gertatu daiteke hau. Durangoko enpresa batean, prozesuan erabiltzen zuten koipeztatzailea aldatu zuten, eta, ondorioz, tenperatura altuekin lan egitean hatsa eragiten zuen; hori jakitera heltzea oso konplexua izan daiteke. Beraz, orain, horixe dugu lanik zailena, prozesua eta iturria zein den ezagutzea, gero prozesuak aldatzeko edo neurriak hartu ahal izateko.

Posible da kutsadura fokua enpresa bat izatea, ala enpresa multzo bat?

Txostenak dioen moduan, jatorri desberdinetatik batutakoa izan daiteke iturria.

Zelan zehaztu daiteke emisio fokua? Beste ikerketa bat egin beharko litzateke?

Lehen esandako moduan, lehenengo pauso bat eman da eta orain beharrezkoa dugu ikerketa edo azterketa sakonago batean lan egitea. Airearen kutsadura arloa oso arlo tekniko eta konplexua da, eta teknikariak garenoi askotan kostatu egiten zaigu herritarrei modu errazean azaltzea. Ikerketak eta etengabeko ezagutza guztiz beharrezkoak ditugu. Bestalde, honetan, ezinbestekoa dugu denon arteko elkarlana, etengabeko ezagutza denon artean partekatuz eta lagunduz. Guztiz beharrezkoa dugu enpresa eta erakunde guztien arteko elkarlana, kutsadura atmosferikoak mugei buruz ez du ezer ulertzen eta.

Durangoko Udalak zergak izoztea proposatu du, higiezinena eta jarduera ekonomikoarena salbu

EAJk kritikatu du zerga politikan ez dagoela proposamen adosturik. Higiezin gainera zerga igotzeari "gehiegizkoa" deritzo



Etxebizitza bloke bat, Durangoko Madalena auzoan.

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Oraingo, mahai gainean ipinitako proposamena baino ez da, baina koronabirusak diru sarrerei eragindako kalteak "konpentsatzeko", Durangoko Udalak zerga politikan alda-

keta batzuk egitea aztertzen dabil. Gobernu taldeak tasa guztiak "izoztu" gura ditu, bi izan ezik. Ondasun Higiezin gainera zerga (OHZ) da bat, eta Jarduera Ekonomikoen gainera zerga (EJZ) bestea. Higiezin

bakoitzari kasuaren arabera igoera aplikatuko litzaioke. Gobernu taldeak dio higiezin mota bakoitzari, batez beste, 24 euroko igoera ezarriko litzaiokeela. Bestalde, Jarduera Ekonomikoaren gainera zerga %2

izatetik %2,2 izatera pasatuko litzaiteke, urtean 2.000.000 euro baino gehiago fakturatzen duten enpresentzat. Gobernu taldeak Bizkaiko Foru Aldunditik datorkion dirua ipini du hartu beharreko erabakiaren

arrazoi modura. Aldundiak iragarri ondoren foru lurraldean diru bilketa %20 jaitsi dela, Durangoko Udalak 2021ean Udalkutxaren ekarpena baino 4.000.000 euro gutxiago jasotzeari utziko lioke.

"Zartakoa" enpresei

EAJ ez dago ados proposamenagaz. Baztergarria iritzi dio Ondasun Higiezin Zergak komertzioei eta enpresei ekarriko dien igoera "gehiegizkoari". Jeltzaleen ustez, ekonomia berpizteko eta komer-

EAJren esanetan, gobernu taldearen asmoek "zartakoa" dakarkie enpresei eta komertzioei

tzioari zein enpresa sareari laguntzeko unea da, "apustu irmoa" egitekoa, eta gobernu taldearen proposamena "zartakoa" litzateke norabide horretan.

Bestalde, gobernu taldearen jarrera kritikatu dute. Ordenantza fiskalen proposamenaren gainera informazioa eskatuta zeukaten idatziz, baina gobernu taldeak "ukatu" egin zien, eskariak batzordean argituko zirela adierazita. Batzarra egin baino lehen informazioa prentsara bidali izana salatu du EAJk.

Iurretako eta Durangoko pentsiodunek manifestazioa egingo dute astelehenean

Manifestariak 12:00etan irtengo dute, Iurretakoek Askondotik eta Durangokoek udal plazatik. Madalenen batu eta talde biak Ezkurdi plazara joango dira gero

DURANGALDEA • EKAITZ HERRERA

Durango eta Iurretako pentsiodunek manifestazioa egingo dute Nagusien Nazioarteko Eguna dela aprobetxatuta. Nazioarteko Eguna egunean izan zen, urriaren 1ean. Baina urriaren 5ean egingo dute manifestazioa. "Egoitzetan edo etxean mendekotasuna duten adineko pertsonen alde" egingo dute,

"pertsonek guztien osasunaren eta bizitzaren alde". Era berean, lan-erreformak indargabetzea, gutxieneko soldata 1.200 eurokoa izatea eta pentsio publikoak eskatuko dituzte. Manifestazioek Iurretako Askondotik eta Durangoko udal plazatik irtengo dute, 12:00etan. Zutabe biak Madalenen batuko dira eta Ezkurdi joango dira gero.



Iaz egindako manifestazioaren irudi bat.

Durango umeei zabalik dute epea igeriketan eta ur-jardueretan izena emateko

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Durango Kirolakek zabaldu du epea umeei eta gazteei igeriketan eta ur-jardueretan izena emateko. Jardueretan, lehenetsia izango dute konfinamendua hasi baino lehen zerbitzuaren erabiltzaile zirenek. Ikastaroetan segurtasun neurriak bete beharko dira. Igerilekueko barruko dutxak baino ezingo dira erabili eta maskara ur ertzearaino eraman beharko da ipinita.

anboto

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurretako - Bizkaia
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902
publi@anboto.org

2020ko urriaren 2a
18. urtea - 822. alea

Lege gordailua:
BI-2268/01
ISSN:
1578-7028
Tirada:
12.000 ale

Zuzendaria: Jone Guenetxea Arrinda.
Erredakzio burua: Ekaitz Herrera Azkarraga
Administrazio burua: Itziar Belar Zubizarreta.
Administrazioa: Miren Abasolo Txabarri.
Publizitatea: Alazne Salcedo Artetxe eta Goretti Alonso Armendia
Erredakzioa: Aitziber Basauri Gandiaga, Joseba Derteano Bilbao, Maialen Zuazubiskar Gallastegi, Aritz Maldonado Zabala.
Maketazioa: Bea Sierrasesumaga Guezuraga eta Ainhoa Iraola Mazorriaga.
Zuzentzailea: Mikel Azkarraga Etxegibel.



Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua

Durangoko bonbardaketa eta fusilamenduak: 84 urte

1936ko irailaren 25ean faxisten hegazkinek lau bomba jaurti zituzten Durangon



Ezrkurdiko frontoi zahararen argazkia. Gerediaga Elkarteak.

DURANGO • JONE GUENETXEA

Faxisten hegazkinek lau bomba jaurti zituzten Durangon orain 84 urte, irailaren 25ean, horietako bat Ezkurdiko frontoian. Bomba horrek hamabi lagun hil zituen. Frontoian pilotan eta inguruan atsedean hartzen ari ziren milizianoak eta Gipuzkoatik etorritako errefuxiatuak izan ziren hildakoak. Euren artean ez zegoen durangarrik. Hildako

Bomba horrek hamabi lagun hil zituen, frontoian zeuden miliziano eta errefuxiatuak

Kartzela asaltatu eta preso zeuden 22 durangar kanposantuan fusilatu zituzten

milizianoen kideek, mendekuz, Durangoko kartzela asaltatu eta preso zeuden hogeita bi durangar bertatik atera eta uriko kanposantuan fusilatu zituzten. Durango 1936 kultur elkarteak gertaera bi hauek herriko historian izan duten eraginaren inguruko gogoeta kaleratu du bere webgunean (durango1936.org).



Bertso-saioa, Iurretako plazan.

Udazkena ekitaldi kultural ez baterik ailegatuko da Iurretara

IURRETA • AITZIBER BASAURI

San Migel jaietan antolatzen zuten ekitaldiak udazkeneko asteburuetan zehar programatu ditu Jai Batzordeak. Urriaren 9an *Jantzari* dokumentala eskainiko dute. 10ean bertso saioa egongo da eta ekitaldiek segida izango dute hurrengo asteburuetan. Urriaren 18an Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoak egongo dira. Urriaren 30ean Ekuru taldeak kontzertua eskainiko du. Ekitaldietara joateko, gonbidapena eskuratu beharko da. Jai Batzordeak hurrengo egunetan emango ditu gonbidapenak lortzeko xehetasunak. Ekitaldi gehiago ere egongo direla aurreratu du.

Sendabelarrak ezagutzeko ibilaldia eta zaharberritze tailerrak antolatu dituzte Garain

GARAI • EKAITZ HERRERA

Ondarearen Europako Jardunaldiak direla-eta, hiru ekitaldi antolatu dituzte Garain. Urriaren 10ean zaharberritze tailerra egingo dute. Kultur etxean izango da, 12:00etan. Bestalde, urriaren 18an ibilaldi bat egingo dute sendabelarrak ezagutzera joateko. Ibiltariak 12:00etan irtengo dute, udal plazatik. Azkenik, urriaren 25ean sendabelarren tailerra egingo dute, kultur etxean, 12:00etan. Jardunaldietan parte hartzeko, 946818066 telefonora deitu edo jardunaldiak@gmail.com helbidera idatzi beharko da.



Ondare jardunaldietako bi kultur etxean egingo dituzte.

Zornotzako Udalak pobreziari aurre egiteko konpromisoa berretsi du

EAJk eta PSE-EEk proposatutako adierazpena onartu du udalbatzak. EH Bilduk bat egin adierazpenagaz, baina berbek ekintzekin lagunduta joan behar dutela dio

ZORNOTZA • EKAITZ HERRERA

Zornotzako azken udalbatzan, Pobrezia Desagerrarazteko Nazioarteko Eguna izan zuten, besteak beste, berbagai (urriaren 17an ospatzen da). EH Bilduk adierazpen instituzional bat aurkeztu zuen, eta idatzi alternatibo bat proposatu zuten EAJk eta PSE-EEk. Azken honek irteten zuen aurrera. Koalizio subiranistak gobernu taldeak proposatutakoa

babestu zuen, baina modu "kritikoan". Koronabirusak zaurgarritasuna areagotu duela-eta, udalak, instituzioekin lankidetzan, politika sozialak areagotzeko lanean jarraituko duela onartu zuten. EH Bilduk dio berba horiek ekintzekin lagunduta joan behar dutela. Zornotzako Harrera taldeak eta Elkartasun Sareak agertutako "gabeziak" kontuan hartu barik jarraitzen dutela dio.

hitz

artekalea 23, durango
946 810 776
info@hitzliburudenda.com

#salduenak

1^o

MIÑAN

Ametz Arzallus & Ibrahim Balde (Susa)

2^o

AITAREN ETXEA

Karmele Jaio (Elkar)

3^o

IBAIERTZEKO IPUINA

Oihane Amantegi (Elkar)

Eskaerak WhatsApp-ez eskatu ☎ 686 214 964, % Bizum-ez ordaindu eta etxean jaso

ZATOZ IURRETAKO HERRI BIBLIOTEKARA!

Gure zerbitzua eta ekintzak segurtasunez eskaintzeko protokoloa ezarri dugu

#KulturaSeguruaDa

<https://labur.eus/gkr9v>



Mañariko Udala URA agentziaren erantzunaren zain dago plazako zubia aldatu ahal izateko


URA agentziako eskakizunek eta COVID-19aren krisiak zubi zaharra kendu eta berria ipintzeko proiektua atzeratu dute

MAÑARIA • JOSEBA DERTEANO

Plaza ondoko zubia itxita dago maiatz ingurutik, txarto dagoe-lako. Udalak 2019an hasi zituen kudeaketa lanak zubi hori kendu eta berri bat ipintzeko, baina URA agentziaren eskakizunek eta COVID-19ak atzeratu egiten dute egitasmoa, udal arduradunen esanetan.

Hasieran, gaur egungoaren ezaugarri berdinak dituen zubi berria ipini gura zuten plazaren ondoan, baina URA agentziak atze-

ra bota zuen asmo hori, eta eskakizun berriak egin zituen. Horrela, udalak proposamen berriak aurkeztu zituen, baina COVID-19aren krisiak dena atzeratzea ekarri du. Oraindino URA agentziaren erantzunaren zain daude. "Udalak lehenbailehen aldatu gura du zubi hori, joan-etorri handiko gunean dagoelako. Aldaketa ahalik eta lasterren egiten ahaleginduko gara, baina URA agentziak dauka azken berba", azaldu du Ainara Otxotorena Mañariko alkateak.



Maiatz ingurutik itxita dago Mañariko plaza ondoko zubia.

Izurtzako Udalak eguzki-panelak ipini ditu pilotalekuko teilatuan

Panelen bitartez sortutako argindarra udal eraikinak argitatzeko erabiliko dute



IZURTZA • JOSEBA DERTEANO

Aste honetan, plaka fotoboltaikoak ipini dituzte Izurtzako pilotalekuko teilatuan. Horrela, eguzki-panel horien bitartez sortutako argindarra udal eraikinak argitatzeko erabiliko dute, udala eta pilotalekua bera, esaterako.

Eguzkitik datorren energia argindar bihurtzeko sistema berria laster martxan ipintzea da udalaren asmoa. Horretarako, aditu batek sistemaren funtzionamenduaren gaineko azalpenak eman dizkie udal arduradunei aste honetan bertan.

Proiektu honen bitartez, energia eredu jasangarriago baten bidean urratsak ematen jarraitu gura dutela azaldu Lorea Muñoz Izurtzako alkateak.

Urriaren 18an hasi gura dute umeen kirol eskaintza Mallabian

MALLABIA • J.D.

Orain zazpi hilabete, Mallabia Futbol Taldeak bertan behera utzi behar izan zituen hilean behin umeentzat antolatzen zituen ekimenak. Orain, itzultzeko prest daude. Protokolo bat landu dute eta monitoreek segurtasunaren inguruko ikastaroa egin dute. Dena ondo badoa, urriaren 18ko domekan hasiko dira berriro 12 urtera artekoiei begirako ekimenak egiten.

Taldeko jokoak alboratu eta bakarka egitekoak baino ez dituzte antolatuko. Esaterako, baloi-jokoetan ume bakoitzari baloi bat emango diote eta umeak baloi hori baino ezingo du erabili. Bestelako jokoetan (xabalina jaurtiketa...), materiala erabiltzen den bakoitzean desinfektatu egingo dute.

Otxandion eta beste hainbat herritan janaria batu dute errefuxiatuentzat

OTXANDIO • J.D.

Irailaren 8an Moriako (Lesbos uhartea, Grezia) errefuxiatuen esparruan gertaturiko sutearen ondorioei erantzuteko, Zaporeak elkarteak janari bilketa bat egin du Euskal Herri osoan. Deialdi horri erantzunez, 300 kilo janari batu zituzten Otxandion joan zen asteburuan. Hemendik Harantza elkartearen bitartez Abadiñon, Elorrioren eta Zaldibarren batutako janaria gehitu behar zaio horri: 1.000 kilotik gora.



BODEGUILLA

TRAÑA-MATIENA
Tel.: 94 681 43 85

CERAMICAS MACOBER

**ZERAMIKA ETA GRESA
DEKORAZIOA ETA APAINKETA
ERAIKUNTZAKO MATERIALA**

1300 m² BILTEGI - 800 m² ERAKUSKETA *Etorri eta ikusi*

Eitua indust., 65 BERRIZ - Tel.: 946 827 890 www.macober.com

urtxintxa
jostailu denda

Jolasten ikastea errazagoa delako

Andra Mari kalea 9 - 94 400 39 69

**Durangaldeko azken
albisteak jaso gura
dituzu?**




**Batu
Anbotoko
whatsapp
taldera**

Bidali ALTA

688 635 041

telefono zenbakira



Izan zaitez berriemaile ere.

Bidali zure argazki eta bideoak

Elorrioko Udalak Gazte-Bonoak kanpaina ipini du martxan, herriko komertzioak gazteei hurbiltzeko asmoz

Kanpaina berri honegaz, herrian gutxienez 10.000 euroko eragin ekonomikoa izatea aurreikusten du Elorrioko Udalak

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Elorrio biziberritzen plan integraren barruan, Elorrioko Udalak kanpaina berri bat ipini du martxan: Gazte-Bonoak. Urriaren 1ean ipiniko dute ekimena martxan, eta herriko egitura ekonomikoa indartzea eta gazteei herriko komertzio txikiak hurbiltzea du helburu. "Komertzio eta saltokiak ezinbestekoak dira herrian. Herriari bizia ematen diote. Beraz, gazteei saltokiak gerturatzea da gure helburua", azaldu zuen Idoia Buruaga alkateak astelehenean emandako prentsurrekoan. Gainera, Elorrioko kanpaina hau eskualdean "aitzindaria" dela esan zuen alkateak. "Durangaldean Elorrio da



Maria Herrero ezkerrean eta Idoia Buruaga eskuman

Udalak azaldu duenez, Gazte-Bonoak ezingo dira erabili alkohola edo tabakoa erosteko

bono bana jasoko dute etxean, eta herriko saltoki txikietan eta jate-

txeetan 12 eurotik gorako erosketak egiteko erabili ahal izango dute. Bonuak ezingo dira erabili tabakoa edo alkohola erosteko. Behin erosketa eginda, bonua eta tiketa Iturri Kultur Etxean edo Herriarren Arreta Zerbitzuan aurkeztu behar dute. Ondoren, udalak ordainketa egingo die.

10.000 euroko eragina

Kanpaina "aitzindari" honegaz, udalak Elorrioko gutxienez 10.000 euroko eragin ekonomikoa izatea aurreikusten duela azaldu zuen Buruagak. "Hala ere, kopuru hori elorriar gazteek establezimendu bakoitzean kontsumitzen duten kopuruaren arabera izango da", gaineratu zuen alkateak.

Ordainketa egiteko, tiketa eta bonua Iturri Kultur Etxean edo HAZ-en aurketu beharko dute

lehenengo udalerrira honelako kanpaina bat martxan ipintzen duena", adierazi zuen.

18tik 29 urtera artekoak

Datozen egunetan, 1991tik 2002 artean jaiotako 810 gaztek 10 euroko

MEGA taldeak 28 langile kaleratu gura dituela salatu du ELA sindikatuak

Sindikatuak kide eta langileei "antolatzeko eta borrokatzeko" deia egin die



Artxiboko argazkia.

BERRIZ • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Berrizko enpresak aurkeztu duen EEE txostenean (Enplegu-erregulazioko espedienteak) 28 kaleratze agertzen direla salatu du ELAk. Sindikatuak ohar baten bitartez adierazi du kaleratze horien aurka dagoela, eta azpimarratu du enpresa bideragarria dela.

Sindikatuak esan du kaleratzeen aurka dagoela, eta enpresa bideragarria dela

"Azken urteetako kudeaketa zinez kaskarra izan da, eta ELAk aspaldidanik ohartarazi du kudeaketa horrek ondorio larriak eragin zitzaizkeela", gaineratu du sindikatuak. Enpresaren kudeaketa ereduak dago arazoa ELAren ustez, eta beharrezkotzat jotzen du "enpresaren eta langileen etorkizuna bermatuko duen" industria plan bat.

Ohar berean, "antolatzeko eta borrokatzeko" deia egin die sindikatuak langileei.



Garazi Murua eta Mikel Arruabarrena.

Garazi Muruak zinegotzi kargua hartu du Elorrioko Udalean

ELORRIO • M. ZUAZUBISKAR

Barikuan osoko bilkura izan zen Elorrioko Udalean, eta Garazi Muruak kargua hartu zuen bertan. "Nire alderdiak Gizarte Politikak eta Berdintasun Saillean herriaren alde lan egiteko aukeratu nau, eta kargua ilusioz hartzen dut. Hala ere, ni postu honetara ekarri nauen arrazoia tamalgarria da", esan du Garazi Murua EAJko zinegotziak. Muruak Joseba Muxikak utzitako lekua beteko du. Muxika joan zen abuztuan hil zen.

EIXU artisau elkarteak azoka antolatu du domekarako Elorrioko

ELORRIO • M. ZUAZUBISKAR

Eixu Artisan Elkarteak azoka antolatu du urriaren 4rako, domekarako, Elorrioko. Arbola parkean izango da. Ekintza artistiko eta kulturala izango da, eta antolatzaileek esan dute plazatik eta zinematik gertu dagoen parkeari bizitza eta kolorea ematea dela helburua.

Azoka 11:00etatik 15:00etara eta 17:00etatik 20:00etara egongo da ikusgai, eta segurtasun neurriak betetzea ezinbestekoa izango da.

Segurtasun neurriekin eta eraberrituta dator Marixurrike

ATXONDO • M. ZUAZUBISKAR

Ikasturte berriagaz batera, Marixurrikeko kideak martxan dira berriro ere. Aurreko urteekin alderatuta, aurten egun bakoitza adin tarte bati zuzenduta egongo da. Gainera, eskaintza berri bat ere izango dute Atxondoko gazteek. Lehen Hezkuntzako hirugarren, laugarren, bosgarren eta seigarren mailakoentzat eta DBHko lehenengo eta bigarren mailako ikasleentzat klase partikularrak eskainiko dituzte ludotekan.



Gremioen gida

 **Zurgintza**

leike aroztegia & diseinua
NEURRIRA EGINIKO PROIEKTUAK



www.leikearoztegia.com
Antso Estegiz, 3 Durango
Tlf.: 94 681 72 29

 **Iturgintza**

UNAI GARAY
ITURGINTZA
BEROGINTZA
GASA

Instalatazile baimendua

659 673 790
unaigaray@yahoo.es

 **Iturgintza**

Mallabiena

M.Z.O. ITURGINTZA - GASA
BEROGAILUA - ERAIKUNTZA, S.L.



Mallabiena industrigunea, 6
48215 IURRETA · Tel.: 946 818 862
mallabiena@mallabiena.com

 **Iturgintza**


Ubide
iturgintza

Iturgintza, gasa eta berokuntza

946 030 506 / 625 702 208
ubide@euskalnet.net
48200 DURANGO 188 PK.

 **Iturgintza**

ALDEKOA-OTALORA
iturgintza

BEROKUNTZA - AIREA - GASA
INDUSTRI MANTENTZEA

info@aldekoaotalora.com

Zubiaurre, 8 IURRETA
944 202 768

Arzubia 10 B Industrialedea, 13-14 pabellioak ABADIÑO
944 071 791 - 692 859 779

 **Zurgintza**

ATERPE AROTZAK
EGUR ERAIKUNTZAK
TEILATU ETA BARRUKO LANAK



Asier Abendibar 635 74 84 65
Ander Maiztegi 655 73 75 51
www.carpinteriaaterpe.com

 **Dekorazioa**

JAIObarnizatuak

Armairu eta era askotariko
altzairuen lakadura eta
guztietako zaharberritzeak
egiten ditugu

Eitua Industrialdea, 45 Garaia A · BERRIZ
Tel./Faxa: 946 824 143 · Mug.: 658 758 421
info@jaiobarnizatuak.com
www.jaiobarnizatuak.com



**Profesionalik
onenak zure
zerbitzura!**





Bambino Rugby Eskolako umeak iazko jardunaldi batean.

Durangaldeko klubek begi onez ikusten dute eskola kirolaren itzulera, eta hasi dira denboraldiko entrenamenduak prestatzen

Zaldibarko Olazarmendi gimnastika erritmiko klubak, esaterako, aste honetan hasi ditu klaseak gaztetxoekin

ESKOLA KIROLA • JOSEBA DERTEANO

Bizkaiko Aldundiak baimendu egin du federatzeko adinik ez duten umei bideratutako kirol eskaintza. Aste honetatik aurrera hasi ahalko da. Orokorrean, eskualdeko kirol klubek begi onez ikusi dute sei hilabetearen itxita egon den atea berriro zabaldu ahal izatea, batez ere uste dutelako kirola egitea onuragarria dela umeentzat.

Durango Rugby Taldeak arrakasta handiko errugbi eskola dauka. Iaz 120 ume izan zituzten Bambino Rugby Eskolan. Bertako arduradun Aratz Gallastegiren esanetan, "gogotsu" daude itzuleraren aurrean. "Kirola egitea eta dinamika hori berreskuratzea umeentzat oso onuragarria dela pentsatzen dugu. Horregaz batera, gurasoek bide bat aurkituko dute seme-alabek kirola modu jarraitu batean egin dezaten", dio. Izan ere, kirola egiteko diziplina hori lorgarriagoa iruditzen zaio inguru antolatu batean, bakarrik arituta baino.

Erronka bat izango da kirol klub guztientzat. "Lan itzela eskatuko digu eta orain arte egitera ohituta ez gauden lan klaseak izango dira", onartu du Gallastegik. Ildo horretatik, monitoreek eta eskolaren inguruan dabilzanek formakuntza saioak egin beharko dituzte, egoera berrian zelan jokatu ikasteko. Gero, protokoloak daude, zelai barruko

jardueretarako bat eta handik kanporako beste bat. Azken horretan, ikastetxeen ildoari jarraitu diote, aurretik eginda duten lan bat delako. "Pistak eman dizkigu jende multzoak zelan kudeatu erabakitzeko". Zelai barruan, sistema mailakatua erabiliko dute; hau da, banan-banako ariketekin hasi eta apurka elementu berriak (baloia...) sartzen joatea da asmoa. Hala ere, "malgutasuna" izango da irizpide nagusietariko bat, eta ibilian ikasi gura dute. "Gauza bat da paperean ageri dena eta beste bat praktikak

erakusten diguna. Egoera aldakorra den moduan, guk ere egokitzen asmatu beharko dugu, malgutasunez jokatzeko", esan du Gallastegik.

"Umeek behar zuten kirola"

Zaldibarko Olazarmendi gimnastika erritmiko klubean ere "pozik" hartu dute itzulera: "Umeek behar zuten kirola egitea", esan du Itsaso Zubia klubeko arduradunak. Kirola ohiko bizimodura aktibatzeke baliabide egokia dela uste du. "Guraso batzuek esan digute euren umeak ohi baino erritmo motelagoan itzu-

li direla eskolako klaseetara. Kosta egiten zaiela. Kirolak gorputza eta burua aktibatzen laguntzen duela uste dut. Kirola inguru antolatu batean egitea mesedegarria da adin horretan. Bestelako onurak ere hor daude, psikomotrizitatea eta abar".

A.Gallastegi: "Egoera aldakorra den moduan, guk ere egokitzen asmatu beharko dugu"

Aste honetan hasi dituzte klaseak. Erritmoa hartzea "kostatu" egingo dela dio eta "pazientzia" izango dute gidari. Kontaktu fisikoa galarazita egotea ere oztopo bat izango da klaseak ematerako orduan. "Ikasketa prozesua astiro-turuko du, baina horixe da egoera, onartu eta horretara moldatu behar dugu", dio.

Monitore berri bat hartu dute taldeak talde txikiagoetan banatu ahal izateko. Horrez gainera, "udalari eskerrak", kiroldegiko kantxa erabili ahal izango dute eta ordutegi zabalagoagaz arituko dira.

"Umeek behar zuten kirola egitea", uste du Olazarmendi klubeko Itsaso Zubiak

"Oraindino ez da unea"

Bestelako iritzia du Durango Judo Taldeko Iñaki Salasek. Klaseei ekiteko "goizegi" dela deritzo eta "zuhurtasunez" jokatzeko unea dela uste du. "Egunean positibo kasu bat edo bi baleude, pentsatu daiteke itzuleraz, baina kasu gehiago egoten dira eta, nire ustez, oraindino ez dira baldintzak betetzen klaseak segurtasunez hasteko", adierazi du.

Euren klaseak espazio itxian eskaintzen dituzte eta horrek ere ez du laguntzen. "Gure azpiegitura ez dago egokituta horrelako egoera baterako", adierazi du.

Gainera, umeak klaseetan barka arituta ez direla dibertituko uste du. "Astebetean beharbada bai, baina hirugarren astean zer ariketa klase eskainiko diozu? Aspertzen badira, orduan bai galduko ditugu betiko", gaineratu du.

Orokorrean, hainbat zentroetako umeak batzen dituzten kirolek kezkatu egiten dute. "Arrisku handia hartzen ari gara horrelako kasuetan", azaldu du.



Olazarmendi gimnastika erritmiko klubak eta Durango Judo Taldeak ume askoz lan egiten dute urtero.

Durungaldeko dozena bat menditara igotzeko deia bertan behera geratu da eguraldiagaitik

Ekimena maiatzaren 8ra atzeratzea erabaki dute. Zapatuan herriko plazetan argazkiak ateratzeko deia egin dute

DURANGALDEA • A.M.

Izan Bidea dinamikaren barruan, Sare plataformak Euskal Herriko tontor ezagunetara igotzeko deia eginda zeukan biharko (urriak 3). Durangaldean dozena pasa tontorretara igotzeko asmoa zuten: besteak beste, Alluitzera, Anbotora, Mugarra eta Urkiolamendira "euskal preso eta ihelsarien etxeratzearen alde, eta baita elkarbizitzaren eta bakearen alde ere", adierazi dute Saretik. Eguraldi txarraren ondorioz an-

tontor' ekimena maiatzaren 8ra atzeratu dute.

"Dei egin nahi dizuegu parte hartzeko asmoa zenuten guztiei, zapatuan herriko plazetan argazkiak ateratzeko"

Argazkiak ateratzeko deia

Hala ere, zapaturako deialdia egin dute. "Mendien igoera atzeratu behar izan dugun arren, dei egin nahi dizuegu parte hartzeko asmoa zenuten guztiei, zapatuan herriko plazetan elkartzera eta lagunartean, familian edo herrikideekin argazkiak atera eta sarean zabaltzera #650tontor eta #izanbidea traolarekin", azaldu dute ekimenaren antolatzaileek.

Alluitzera, Anbotora, Mugarra eta Urkiolamendira igotzekoak ziren

tolatzaileek ekimena bertan behera uztea erabaki zuten eguenean. '650



Oizera igoera antolatu zuen Sarek abuztuan.

Gaur aurkeztuko dute Euskaraldiaren edizio berria Zaldibarren

ZALDIBAR • A.M.

Gaur, urriak 2, 18:30ean aurkeztuko dute Euskaraldiaren bigarren edizioa Zaldibarren. Udaletxeko plazan izango da aurkezpena (euria eginez gero, frontoian egingo da). Aurtengo partaideez gainera, Zaldibarko ariguneak ere aurkeztuko dituzte bertan; musika ekitaldia ere egingo da, eta aurtengo Euskaraldian izena emateko aukera egongo da. "Aurten ere, euskaraz gehiago, gehiagorekin eta gehiagotan", adierazi dute antolatzaileek.



2018ko aurkezpeneko argazkia.

Abadiñon Hezkuntza Kontseilu bat sortzea proposatu dute

EH Bilduk osoko bilkuran aurkezturiko proposamena ez da onartu EAJk eta Alk aurkako botoa eman dute eta

ABADIÑO • A.M.

Abadiñoko hiru ikastetxeetako zuzendaritza talde, guraso elkarre, langile eta udal ordezkarien lankidetzarako gune bat sortzea proposatu zuen EH Bilduk iraileko osoko bilkuran. "Hezkuntza herri ikuspegitik lantzea beharrezko ikusten dugu, eta, horretarako, hiru ikastetxeetako zein hezkuntza ez formaleko eragileen artean sinergiak bilatu behar dira", azal-

du zuen Mikel Urrutia EH Bilduko zinegotziak. EAJ eta AI taldeetako zinegotziek ezezko botoa eman zuten.

Mikel Garaizabal alkatearen berbetan, "nahikoa da" Eskola Kontseiluekin, eta ez da beharrezkoa gune berri bat sortzea. Javier Crespo alkateordearen esanetan, Euskara Kontseilua da "foro egokia" horretarako, bertan lantzen direlako hezkuntzari loturiko gaiak.



Egoera berezi honetan
MAKALLAU SALTZAN
KATERIN zabalik dago!

Enkarguak egiteko edo informaziorako,
telefonoz edo **whatsapp** bidez gugaz
kontaktuan jarri:

 688 773 205 / 688 734 329

 #etorritadastau #unezailetanerezureondoan

saltsan.com



OINETAKO PATOLOGIAK
NEURRIRA EGINDAKO PLANTILLAK
OINETAKO BESTE HAINBAT GAITZ

Herriko gudarien kalea, 10 behe - DURANGO
Tel./Faxa: 946 215 404



Kalebarria z/g - Durango
Tel.: 946 201 893
Faxa: 946 816 403

Durangaldea asteen



Durango Andereak elkarteak prostituzioaren abolizioaren aldeko kanpaina hasi du

Joan zen asteen egindako elkarretaratzeagaz, elkarte feministak ziklo berri bati hasiera eman zion

Durango | Euskal Herriko Mugimendu Abolizionistako kide diren Durango Andereak elkarteak kideek prostituzioaren abolizioaren aldeko kanpaina bat hasi dute. Elkartetik jakinarazi dutenez, eguenetako elkarretaratze batzuetara prostituzioaren abolizionismoa plazaratuko dute.

"Emakumeak ez gara merkatzia" oihukatuz, estatu espainiarreko erakunde abolizionistek eskatzen duten lege abolizionista bultzatu gura du Andereak elkarteak.

Horrez gainera, prostituzioa indarkeria matxistaren muturreko forma bat dela salatzen dute.

Zaldibarko EH Bilduk udal azpiegituren garbiketa zerbitzua indartzea eskatu du

Zaldibar | EH Bildu "kezkatuta" agertu da udal azpiegiturak garbitzerakoan irizpide desberdinei jarraitzen zaielako. "Funtsezkoa da instalazioen garbiketa areagotzea, eta instalazioen erabilera seguruari buruzko informazioa ematea herritarrei. Gobernu taldeak norabide horretan hartutako neurriek EH Bilduren babesa edukiko dute", azaldu du Carmen Sampedro zinegotziak.

Zornotzako Udalak Osasun Zentroaren ondoan dagoen markesina hobetu du

Zornotza | Zornotzako San Juan kalean, Osasun Zentroaren ondoan, dagoen markesina hobetzeko lanak egin dituzte. Udaletik jakinarazi dutenez, egitura egokitu dute. Markesina bi batu dituzte eta, horrela, espazio zabalago bat sortu dute. Lan horiekin euri egunetan pertsonak babestuago egotea lortu gura izan du udalak.

San Bizente-Zabaleta eremuko HAPOaren inguruko partaidetza prozesua martxan

Elorrio | Elorrioko Udalak aurrera jarraitzen du San Bizente-Zabaleta eremuko HAPOaren aldaketa puntuala egiteko partaidetza prozesuagaz. Joan zen eguaztenean batzarra egin zuten herritarrekin, eta ekarpenak jasotzeko partaidetza-prozesua zabaldu zuten. Orain, elorriarrek aukera dute euren proposamenak aurkezteko, haz@elorrio.eus helbidera idatzita edo udaletxera bidalita.

Iritzia

Plateruenaren ekarpena

Plateruena Kafe Antzokia Kooperatiba Elkartearen bazkideok, batzar nagusian bildurik, kooperatiba desagitea erabaki genuen. Latza izan zen erabakia, baina hausnarketa egiteko unea da. Hausnarketa Plateruenak Durangori, euskarari eta euskal kulturari egin dion ekarpenaz. Hausnarketa etorkizunari buruz. Neure eritzia azaltzen ahaleginduko naiz.

Hasteko, eskertu nahi ditut proiektu honen sortzaileak, urteetan lanean ibili diren boluntarioak (zuzendaritzakoak, laguntzaileak, lantzean behin arituak, eta abar), bazkide guztiak eta langileak. Zergatik? Proiektu honetan sinestu dutelako, lan eskerga egin dutelako Durangon euskara, euskal kultura eta euskal identitatea elikatzeke, eta 18 urtean zehar Durango Euskararen Etxea eraikitzen ari izan direlako. Plateruenak Euskararen Etxea eraikitze lanean jarritako harria handia izan da, benetan. Zaila egiten zait niri, behintzat, euskararen eta kulturaren Durango Plateruena barik irudikatzea.

Nire ustez, Plateruenaren ekarpena Durango kultur-arloan handia izan da, eskerga. Argi dago ez dela izan ekarpen bakarra, baina bai esanguratsuenetakoa. Durangon egindakoaz gain, Durangaldera ere zabaldu du eragina, eta Euskal Herri osora oihartzuna.

Orain, une honetan, behin proiektua desaginda, argi izan behar dugu proiektuaren helburuek zutik dirautela. Hausnarketa unea da, baina Durango Euskararen Etxea eraikitzen jarraitzearen helburuak hor dirau. Indarrak bildu eta lanean jarraitzeko unea da, zeregina ez da txikia eta.

Norbait hiltzen denean, edo hiltzen dutenean, Kolonbiako nasa indigenek haren gorpua erein egiten dute, eta, horretarako, ereite ekitaldia antolatzen dute. Nik uste dut guk ere Plateruena Kafe Antzokiaren proiektua erein egin beharko genukeela eta ereite ekitaldia antolatu, Durango Euskararen Etxea hazi berrietatik hazi eta handitu dadin.

Andoni Barreña

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak: Bixente Kapanaga 9, -IURRETA • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia **DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO** Alderdi, elkarte edo taldeko iritzia kide baten izenean sinatuta eta ANBOToren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira.
Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

Lau hankako mahaia

Neskutz
Rodríguez
Herriaren Eskubidea



Kiratsa

Joan den asteen aurreko lege-gintzaldian eskaturiko ikerketaren emaitzak ezagutu genituen. Askok uste bezala, aldiro izaten dugun kiratsa ez da eguraldi txarraren adierazlea soilik, hiltzen gaituen kutsaduraren seinalerik garbiena baizik.

2017an "txip" aldaketa gertatu zen Durangaldean. Ordura arte usain txarraren inguruan hitz egin hitz egiten genuen, baina, orokorrean, ez genion behar bezalako garrantzirik ematen. Euskal Herri osoan Liburu eta Disko Azokaz gain hatsagatik ezagunak baginen ere, ez zuen horrek gure eskualdean asaldura berezirik sortzen. Urte horretan, baina, gaiarekin bereziki kezkatuta zeuden hainbat herritarrek haserre kaleetara atera zuten, hiru urte geroago egindako ikerketak erakutsi diguna ozen salatuz.

Eta orain, zer egin? Errudunak bilatzea baino, konponbidea aurkitzeko garaia dela uste dugu. COVID-aren pandemiak protokoloak gartzera eraman gaituen bezala, emaitzak ikusita, kutsaduraren aurkako protokoloak ezartzera behartuta gaude denok. Plataforma, herritar zein inplikaturiko erakundeak, denok batera, elkarlanean. Argi izan behar dugu, edozein kasutan ere, aurrean duguna osasun publiko arazo larria izanik, gakoa ez dela soilik industria-isurketak muga legeen barruan egotea, baizik eta gaixotuko ez gaituen aire kalitatea lortzea.

Nahi dugun etorkizuneko Durangalde hobe hori lortzeko ezinbestekoa dugu lanean jarri eta, behingoz, eskualdea kutsaduraren uztarpetik askatzea.


merkataritza gida sarean

anboto.org/gida

Ezagutu eta erabili Durangaldeko merkataritza gida euskaraz eta sarean!

Merkataritza gidan parte hartzeko deitu: 946 217 902
Argazkiak - Datuak - Kokapena (urtean 50€)





Kokatu mapan alboan dauden animaliak. Pista batzuk mapan dituzu.



ZEIN DA ZEIN?

Animalia bakoitzari bere aztarna dagokio

1



2



3



4



5



6



7



8



9




10




OSATU MARRAZKIA

Osatu marrazkia lauki-sarearen laguntzagaz
eta margotu gurago duzun moduan.





DOMINOA

Marraztu itzazu falta diren irudiak lauki zurietan.



Topatu itzazu hamar difrentziak.

DIFERENTZIAK






LABIRINTOA

Zein bide hartuta
lortuko ditu bananak?



A B C





ANBOTOREN LAGUNAK

Euskarazko hedabideok mundua ikusteko modu propioa dugu, euskaratik eta euskaraz.

Orain, gure komunitatearen konpromisoa inoiz baino beharrezkoagoa dugu aurrera egiteko, euskarazko eta kalitatezko kazetaritza egiten jarraitu ahal izateko. Izan ere, bizi dugun egoera ekonomikoagaz **ANBOTO**ren jarduna kinka larrian dago.

Jarri ezazu zure alea euskarazko informazioa sortzen eta garatzen jarraitu dezagun, Durangaldea ezagutzen, bertan gertatzen denaren berri ematen eta gure ikuskera zabaltzen jarraitu dezagun.

ANBOTOren laguna izan gura duzu?

Urtean **30 euro** ordainduta, **ANBOTO** komunikazio proiektuari sostengua emango diozu.

Bidali mezua: anboto@anboto.org

Deitu: 94 681 65 58

Bete formularioa: www.anboto.org





Kotondarrak

TXOTXONGILOAK ZORNOTZA :: Urriak 2 eta 3

Ehungintza industrian andrek bizitako langile borroka

Miren Larrea zornotzarrak Valentina Raposogaz batera sortutako Anita Maravillas antzerki konpainiak azken txotxongilo ikuskizuna estreinatuko du Zornotza Aretoan, asteburuan: *Kotondarrak*.

Sorterriko arriskuak atzean utzita, Koton familia hirira abiatuko da bizitza eta aukera berrien bila. Eta hiriko teilatu, argi, eta lantegiko makina eta oihalen artean, amak eta alaba biek abentura

berriak eta arrisku ezezagunak biziko dituzte. Mende hasieran emakumeek ehungintza industrian izandako langile borrokan inspiratuta sortutako ikuskizuna da *Kotondarrak*. Industria-iraultza

betean, familia baten begiradatik iruditegi bisual bat sortu du Anita Maravillas konpainiak. Gaur tau-laratuko dute, 20:15ean, Zornotza Aterean. Bihar saio bi izango dira: 12:00etan eta 18:00etan.

Urriaren 2an

BERRIZ antzerkia
‘Imbebible’ (Txintxaun Kolektiboa), 21:30ean, Berrizko Kultur Etxean.

ELORRIO dantza
‘Otsoa’ (Proyecto Larrua), 20:30ean, Arriola antzokian.

Urriaren 3an

BERRIZ antzerkia
‘Imbebible’ (Txintxaun Kolektiboa), 20:00etan, Berrizko Kultur Etxean.

ELORRIO musika
Arantza eta Pantxo, 18:00etan, Aldatsekuan.

ELORRIO filmak
‘Class Ranandegi’ + ‘Solo son Peces’ + ‘Ez, eskerrik asko! La ventana de Gladis’, 20:00etan, Arriola antzokian. Bilboko Zinema Ikusezinaren Film Sozialak jaialdiaren XII. aldia.

DURANGO zirkua
‘Bizi, bizi, zirkua’ (Kiki, Koko eta Moko pailazoak), 18:00etan, Plateruena kafe antzokian (euriagaz Kurutziaga ikastolan).

DURANGO antzerkia
‘Vida’ (Javier Aranda konpainia), 19:00etan, San Agustin kulturgunean.

DURANGO antzerkia
‘Tonbola’ (Hika Teatro), 20:00etan, Landako Gunean.

DURANGO musika
Izaki Gardenak + Libe, 22:00etan, Plateruenan.

Urriaren 4an

ABADIÑO antzerkia
‘En el aire’ (Athenea Musical), 19:00etan, Errota kultur etxean.

DURANGO magia
‘Amarru’ (Tor Magoa), 12:00etan, Aramotz auzoan.
‘Sugarri oholztan’, 13:00etan, Tabira parkean (euriagaz, Kurutziaga ikastolan izango dira).

DURANGO musika
Luhartz, 19:00etan, Landako Gunean.

ELORRIO filma
‘Iktamuli’ + ‘Pastoreak’ + ‘Stalking Chernobyl’, 20:00etan, Arriola antzokian. Bilboko Zinema Ikusezinaren Film Sozialak jaialdiaren XII. aldia.

Urriaren 4ra arte

DURANGO erakusketa
‘Sorginak’, Arte eta Historia Musean.

Urriaren 5ean

ELORRIO filma
‘Mateoren ama’ + ‘Cholitas’, 20:00etan, Arriola antzokian. Bilboko Zinema Ikusezinaren Film Sozialak jaialdiaren XII. aldia.

Urriaren 6an

ZORNOTZA zinekluba
‘Papicha. Sueños de libertad’, 20:00etan, Zornotza Aretoan.

Urriaren 8an

DURANGO antzerkia
Rita (Txalo Produksioak), 19:00etan, San Agustin kulturgunean.

ZALDIBAR dokumentala
Mendi Tour: ‘Harria Herria’ + ‘Allein’ (Alone) + ‘Home’, 18:30ean, Liburutegi Zaharrean. 2019ko Mendi Film Jaialdiko ikus-entzuneak.


Urriaren 9an

BERRIZ antzerki familiarra
‘Lunaticus Circus’ (Teatro Paraiso), 18:15ean, Berrizko Kultur Etxean.

IURRETA dokumentala
‘Jantzari- tradizioa eta parekidetasuna’, 20:00etan eta 22:00etan. Iurretako Plazan.

Urriaren 10ean

IURRETA bertsolariak
20:00etan. Amets Arzallus, Maialen Lujanbio, Igor Elortza, Onintza Enbeita, Unai Iturriaga eta Jon Maia. Gai-jartzailea: Ainhoa Urien.



Zine- ma

:: Berriz KULTUR ETXEA

• **Padre no hay más que uno 2**
barikua 2: 18:15
domeka 4: 17:00

:: Durango ZUGAZA

• **Akelarre**
barikua 2: 19:30/22:00
zapateria 3: 18:45/21:15
domeka 4: 19:00/21:00
astelehena 5: 18:00/20:30
martitzena 6: 20:00
eguztena 7: 19:30

• **Explota Explota**
barikua 2: 19:30/22:00
zapateria 3: 19:30/22:00
domeka 4: 18:00/20:30
astelehena 5: 18:00/20:30
martitzena 6: 19:30
eguztena 7: 19:00

• **Rifkin's Festival**
barikua 2: 19:30/22:00
zapateria 3: 18:00/20:00/22:00
domeka 4: 18:00/20:30
astelehena 5: 18:00/20:30
martitzena 6: 19:30
eguztena 7: 19:00
• **Vicky vikingo y la espada mágica**
zapateria 3: 16:30
domeka 4: 17:00

:: Zornotza ARETOA

• **El Drogas**
zapateria 3: 21:00
• **Un amigo extraordinario**
domeka 4: 20:00
astelehena 5: 20:15
• **%100 Wolf: El pequeño gran lobo**
domeka 4: 17:00

ANBOTOKo agendan ezer iragarri gura baduzu, idatzi agenda@anboto.org helbidera edo deitu **946 232 523** telefonora, eguazten eguerdia baino lehen.

UDAKO 6. ARGAZKI LEHIAKETAKO irabazleak

DURANGALDEKO argazkirik onena

Epaimahaiaren
saria

Ane Bernas

Boto
bidezko
sariduna

Ainara Ibañez

Durangaldetik KANPOKO argazkirik onena

Epaimahaiaren
saria

Olatz Aizpitarte

Boto bidezko
sariduna

Maria Jesus Larrañaga



"Etorkizunean ere euskal kultura bultzatuko duen proiektu batean parte hartzea da gure helburua"

Plateruenaren itxieraren aurrean, Gontzal Aizpurua zuzendaritzako kideak eta Ihintza Orbegozo kultur arduradunak egoeraren berri eman dute



DURANGO • JONE GUENETXEA

Ziklo baten amaiera heldu da Plateruenera. Martitzenean batzar nagusia egin eta gero, 16 urteko ibilbidea etetea erabaki zuten.

**Plateruena Kafe Antzokia Koope-
ratiba Elkarteak kooperatiba dese-
gitea erabaki du bazkideen batzar
nagusian. Zein sentsaziogaz geratu
zarete?**

Gontzal Aizpurua: Pena handiz har-
tutako erabakia izan da. Kudeaketa
ekonomikoa zaila izan da gure ibil-
bide osoan; azken bost urteetan, ba-
tez ere. COVID-19ak ezinezko egin
du jarraitzea eta eraikinaren ustia-
pen-epea luzatzea. Bestalde, kultur
arloan 16 urtean egindako lanagaz

**“
16 urtean 2.000
ekitalditik gora
antolatu ditugu
Plateruena kafe
antzokian”
IHINTZA ORBEGOZO**

oso pozik gaude. Kulturaren eta
euskararen arnasmuna izan da.
Helburu hori bete du Plateruenak.
Ihintza Orbegozo: 2.000 ekitalditik

gora antolatu ditugu 16 urtean
Plateruena kafe antzokian. Duran-
goko herritarrek, kulturagileek,
bazkideek, langileek, kolaboratzaile-
ek, boluntarioek... denon artean

**“
Kontsumo ohiturak
aldatu egin dira.
Durangon, ostalaritza
sektore guztiak
nabaritu du hori”
GONTZAL AIZPURUA**

egin dugu hori. Esker oneko gaude
elkarlanean proiektuan parte har-
tu duten guztiekin.

**Diru-sarreretan, ostalaritzaren
beherakada orokorra izan da. Duran-
goko ostalaritzan gauak desagertu
egin dira.**

G.A.: Arlo ekonomikoak nekea
eragin digu beti. Ostalaritza zer-
bitzuetatik egin gura izan dugu
bideragarri kultur jarduna, eta ezin
izan dugu lortu. Orain urte batzue-
tatik hona, kontsumo ohiturak al-
datu egin dira eta kolpe hori naba-
ritu genuen. Durangon, ostalaritza
sektore guztiak nabaritu du hori.
Pandemiaren aurretik, edozein as-
teburutan ordu jakin batetik aurre-

ra Goienkale hutsik zegoen. Jaiek,
Durangoko Azokak... horrelako
ekitaldi jendetsuek salbatzen zuten
urtea. Hurrengo belaunaldiak beste
kontsumo eta aisialdi ohitura bat-
zuk ekarri dituzte. Egoera hori au-
rretik zetorren eta orain bigarren
krisialdi orokorra egokitu zaigu.
Ez gara gai izan, beharbada gain-
dimentsionatuta egin zen egitura
etengabe aldatzen ari den egoera
honetara egokitzeko.

Zer gertatuko da langileekin?

G.A.: Egoera aztertu eta gero, Plate-
rueneko langile taldeak eta zuzen-
daritza batzordeak etapa bat amai-
tu dela partekatu dugu. Batetik,
orain 20 urte sortutako ereduak
agortze-sintomak erakusten di-
tuelako, eta, bestetik, gaur egungo
egoera sanitario-sozialak ostalari-
tza ustiapenaren bideragarritasuna
ezinezko egiten duelako. Gainera,
egungo egoerak ezinezko egin du
udalagaz genuen ustiapen kontra-
tua luzatzeko aukera. Behartuta
geunden eta kooperatibaren jar-
duera bertan behera uztea erabaki
da. Langileen egoera pertsonalari
dagokionez, kontratuak azkendu-
ko dira eta kalte-ordain osoa kobra-
tuko dutela uste dugu. Elkarlanean
gabiltza asmo horregaz.

Utzi du zorrik Plateruenak?

G.A.: Zorrak, galerak eta biderae-
zintasun ekonomikoa direla-eta
itxi behar izan dugu Plateruena.
Plateruenak, guztira, 490.000
euroko maileguak eskatu zizkien

**“
Eraikina udalaren
jabetzan geratuko da.
Ikuskizun eta ostalaritza
azpiegiturak ere bai”
IHINTZA ORBEGOZO**

finantza erakundeei. Horieta-
tik 105.000 euro inguru ordain-
du barik utziko ditu. Krisialdi bi
gainditu behar izan ditugu, eta
ahalegindu garen arren ezin izan
zaio konpromiso horri erantzun.
Gertuko hornitzaileekin ez dauka-
gu zorrik, eta langileek dagokiena
kobratu ahal izango dute.

Eta etorkizunera begira, zer?

I.O.: Eraikina udalaren jabetzan
geratuko da. Ikuskizun eta ostala-
ritza azpiegiturak ere bertan gera-
tuko dira. Horiek ere udalari uzten
dizkiogu. Etorkizunean ere euskal
kultura bultzatuko duen proiektu

batean parte hartzea da gure hel-
burua, orain arte izan duen kultur
ibilbideari jarraipena emateko.

G.A.: Eraikin ederra da udalari
uzten dioguna. Bere sasoiari,
1.405.000 euro inbertitu ziren ber-
tan, eta honen zatirik handiena
Berbaro Elkarteak eta 877 herritar
eta eragilek ordaindu zuten.

**Sorrerako bazkide eta elkarte horiek
uzten duten ondarea da, beraz.**

I.O.: Orain 16 urte, esfortzu handia
egin zuten gaur dugun kultur
ekipamendu hau eduki dezagun.
Horregaitik, eskerrak eman gu-
ra dizkiegu. Baita urte hauetan
proiektuan lanean aritu diren guz-
tiek ere. Eurei eskerrak izan dugu
horren kultur ibilbide oparoa, eta
eurei eskerrak uzten diogu orain
udalari halako eraikin bat.

**Itxiera noiz gauzatuko da? Ekitaldi
batzuk programatu dituzue**

G.A.: Likidazioak irautean duen
bitartean, kultur ekitaldiak an-
tolatuko ditugun arren, ohiko
ostalaritza zerbitzua itxita egongo
da. Ikuskizunak daudenean, ho-
riek zabaltzea aurreikusten dugu,
uda sasoiari egin dugun legez,
baina baliteke gure esku ez egotea.
Abenduaren 31n amaiera emango
diogu orain arteko ibilbideari.

'Jantzari' dokumentala datorren urriaren 9an estreinatuko dute, Iurretako plazan

Emanaldi bi egongo dira, 20:00etan eta 22:00etan

IKUS-ENTZUNEZKOAK • J. GUENETXEA

COVID19-aren eraginez, martxo-rako prestatuta zegoen *Jantzari* dokumentalaren estreinaldia bertan behera geratu zen. Iurretako dantza taldeak, Bideografiko ekoiztetxeak eta ANBOTOk egindako lanak badu data berria estreinaldirako: urriaren 9a. Herriko jai batzordeak jaietatik kanpora antolatuko duen kultur programazioaren barruan lehenengo ekitaldia izango da. Emanaldi bi egongo dira, 20:00etan eta 22:00etan. Bost urterik behin, Iurretako dantza taldeak Urrijena antolatzen du

Iurretan. Egun horretan, Iurretako belaunaldi guztietako dantzariak batzen dira elkarregaz dantzan egiteko. Iaz, lehenengoz, talde parekideak beste ezpatadantzariekin konpartitu zuen plaza, eta egun horren prestaketa eta ospakizuna ere azaltzen dira dokumentalean. Dantzarien emozio eta gogoetek hausnarketarako bidea zabaltzen dute. Era berean, dantza munduan parekidetasuna bultzatzen jardun duten hainbat pertsonaren gogoe-tak ere jasotzen dira. Bestalde, Miren Bikandik Iurretako dantzei egindako ekarpena ere

azaltzen du ikus-entzunezkoak. "Pandemiaren hasieran hil zen Miren, eta berari eskaini gura diogu estreinaldi hau", azaldu du Unai Esturo Iurretako dantza taldeko kideak.

Sarrerak eskuragarri

Sarrerak banatzeko, Jai Batzordeak mahaia ipiniko du Askondoko karpan astelehenetik eguenera, 18:00etatik 20:00etara. Ordu horretan, telefonoz eskatu daitezke sarrerak (688813292). Astelehen eta martitzenean iurretarrekin lehentasuna izango dute.




Goian Miren Bikandi, grabazio batean eta Urrijenan publiko artean jasarrita. Behean, dokumentaleko grabazioetako irudi bi.

Gai librea

Alperrik da apaintzea

Hotza eta euria bueltatu dira gurera; astiro agian, baina saihestu ezin daitekeen inertzia itogarri bezain eder horrekin. Haiekin batera, kaleak husten hasi dira eta uste (edo nahi) baino indar gutxiago geratzen zaigula konturatu gara. Igarotze likido honetan noraezean, Gramsciren hitzek gero eta pisu handiagoarekin zulatzen dute kontzientzia. Mundu zaharra hilda dago. Berria, aldiz, ez da jaiotzen; eta bitartean, munstroak ageri dira.

Sudurra estalita bozkatzeko daramagu jaio ginenetik, Antonio Orihuela poetak oihukatu zigulako ez ditugula ordezkariak aukeratzen, ordezkariak



Ritxi Blanco Aguilera
Ikerlaria

Mundu zaharra hilda dago. Berria, aldiz, ez da jaiotzen; eta bitartean, munstroak ageri dira.

baizik. Ez dira gauza bera. Horregatik, mundu zaharrera kateatuta dauden piramidearen tontorreko performance antzuetatik gero eta urrunago sentitzen gara. Su artifizial horien guztien atzean dagoena ez ikusteko entrenatu gintuzten urte luzez, baina gure bularrean dugun presioa ezin dugu ukatu jada. Kapitalismoak sortu duen sindemia erraldoi honek hilko

gaitu, hiltzen gaitu, garapenaren ize-nean.

Eta zurrumbilo horren pean, gu, norbanako isolatu eta kontraesankorrak. Arima hustuta, zeharo minduta, ahal dugun ondoen kolpeei eusten: "Higadura ez da sekula agortzen, hezurak miazkatzeaz nekatzen / Irudi abstraktuan bilakatu zara, eta orain alperrik da apaintzea" diosku gordin Joseba Poncek. Zer egin? Erantzunik ez da, baina dena galdu dugula dirudien arren, ezereza ere bada zerbait. Bidea nonbaitetik hasi behar delako, toki hori hutsune absolutua bada ere. Bizitza iragankorra baita, eta ez du itxaroten.



Ibai Zabala Gandarias
Baiko enpresako pilotaria
Berriz | 1987

“Duintasuna eta elkartasuna gauza guztien gaineratik daude”

Ondorioak ondorio, pilotarien eskubideak lehenengo lerrotik defendatzen dabil Ibai Zabala

PILOTA • JOSEBA DERTEANO

Aste bi joan dira Baikoko pilotari ia denek prentsaurrekoa eskaini zutenetik euren egoera salatzeke eta enpresari jarrera aldaketa bat eskatzeko. Harrezkero, enpresako inor ere ez da eurekin zuzenean hartu-emanetan ipini, eta egoerak okerrera egin du. Esaterako, Jon Mariezkurrenak Baiko utzi du, enpresak kontratua berritzeko egin dion proposamenari "lotsagarria" irudituta.

Prentsaurrekoa eskaini zenutenetik, salatu duzue ez dutela borondaterik erakutsi Unai Lasogaz kontratua berritzeko, eta Jon Mariezkurrenagaz gertatutakoa ere hor dago. Mendekuaren politika da?

Nire uste pertsonalean, bai, duda rik barik. Zergaitik? Egoera ekonomiko txarra argudiatzen dute, baina egoera horren berri eskatu diegunean, ez digute ezer erakutsi. Beraz, zein da geratzen zaidan interpretazio bakarra? Mendekuarena. Lasok izan du proposamen bat mahai gainean, baina proposamen horren zenbakiak eta Lasoren maila antzerakoan dabilzanenak eza gutzen ditugunok, biak alderatuta, badakigu proposamena beharko lukeenaren erdia dela. Mariezkurrenagaz beste hainbeste gertatu da, ia debutatu zuen sasoiko proposamena egin diote. Nire ustez,

proposamen horiek ezetz esateko gonbidapena dira eta hedabideen aurrerako justifikazio bat bilatzen dute, mahai gainean proposamen bat egon dela esateko.

Prentsaurrekoko argazkian talde irudia eman zenuten, baina batzuk lehenengo lerroan ipini zineten, zu zeu tarteko. Frontean egote horren ondorioek arduratzen zaituzte?

Arduratu, ez nau arduratzen. Hori bai, jakin badakit eragin bat izan dezakeela eta seguruenik izango duela. Baina dena baloratu eta horixe izan zen nire erabakia. Jakina, erosoagoa izango zen niretzat bigarren plano batean geratzea. Baina ikusten ari gara pilotari askok ez dutela ez tratu duina ez soldata duina jasotzen; eta jendea kaleratzen dabiltzala inongo arrazoirik barik. Egoera horien aurrean isilik egon behar dut eta berbak irentsi? Bada, hori ez dator bat nire izaeragaz. Duintasuna eta elkartasuna daude gauza guztien gaineratik, nire ustez. Dena ez da pilota, nik baditut nire ikasketak, badut bihar-etzira begirako bizitza asmo bat eta ikusiko dugu zer datorren. Argi dudana da diruak ez dituela nire printzipioak erosiko.

Pilotaririk gehienak bat eginda zaudete, baina ez denak. Zer deritsozu horri?

Pertsonalki tristura handia era-

giten dit. Auzoko enpresan beste irudi bat erakutsi dute. Aspen denak batera egon dira, hasieratik. Egoera ondo eraman dute aurrera, lehenengo mailako pilotarien sakrifizioari eskerrak batez ere. Txapela kentzen dut pilotari horien aurrean. Guk, zoriotzarrez, ez dugu egoera hori bizi. ERTEaren sasoian, Olaizolak eta Urrutikoetxeak euren bidea egitea erabaki zuten eta enpresako pilotaririk indartsuenen faltan geratu ginen. Hori gabezia handia izan da guretzat. Pena da,

“**Egoera horien aurrean zer egin behar dut, isilik geratu? Bada, hori ez dator bat nire izaeragaz**”

pilotaririk gehienok elkartuta gaude, baina denok egon beharko genuke, salbuespenik barik. ERTEtik honako bidean Ander Imaz ere bidean geratu da, gure ustez pilota taldearekiko jarrera txarra izan duelako. Beraz, bai, honek guztiak tristezia eragiten dit.

Erakunde publikoen bitartekaritza eskatu duzue.

Nortzuk dira negozio hau elikatzen

dutenak? Estamentu publikoak, diru publikoagaz. Eurengana jo genuen, baina, oraingoz, ez dugu erantzunik jaso. Gainera, jakin badakigu hedabide batzuek Eusko Jaurlaritzako kirol zuzendaria elkarriketatu gura izan dutela, baina ezezkoa jaso dutela.

Egoera hobetu ezik mobilizazioen aukerari atea zabaldu zenioten. Ate hori gaur atzo baino irekiago dago?

Bai. Inork ez dezala pentsatu gure prentsaurrekoa beroaldi baten ondorioa izan zenik. Horren aurretik, beste bide askotatik ahalegindu ginen egoera bideratzen. Gure ahaleginari emandako erantzuna isiltasuna izan zen, eta beste lankide bi kaleratzea. Beraz, mobilizazio batetik gertuago gaude orain.

Zuen egoeraren berri ematen duten adibide ugari ipini dituzue, baina Iker Arretxerenak zur eta lur utzi nau.

15 urtean egon da enpresan, eta sekula zaratarik atera barik. Enpresa gizona izan da. Eta Zarauzko frontoian 22-3 galdu ostean, honakoa entzun behar: "Jakin ezazu ez dizugula kontratua berrituko eta beste partidu bi dituzu oraindik programatuta, baina, tira, kendu egingo dizkizugu, horiek jokatzeko gogorik izango ez duzula suposatzen dugu eta. Eskerrik asko eta agur". Baina berak partidu horiek jokatu egin zituen, horrela gura zuelako. Eta azken partiduan egin

zitzaion omenaldia Aspek antolatuta zuen eta gure enpresako ordezkari bakar bat ere ez zen agertu. Hori da merezi zuen agurra?

Etorkizunera begira, pilotarien eskubideak defendatuko dituen elkarte bat sortzeko asmoa erakutsi duzue. Zer punturaino da erabaki irmo bat?

Hori etorkizun hurbil batean ikusiko dugun zerbait izango da. Orain dela gutxira arte pilotarien nahi bat bakarrik zen, baina, zorionez, horren inguruko berri on batzuk jaso ditugu eta gauzatuko da. Gaur egungo pilotarientzat ere bai, baina, batez ere, etorkizunekoentzat izango da inportantea. Pilotariak edozein duda daukanean elkarte horretara jo ahalko du, aholku eske. Eta ez hori bakarrik, enpresekin gutxiengo batzuk markatu ahal izateko balioko du. Beharrianak ez ezik, eskubideak ere baditugulako. Gutxiengo edo oinarritzko baldintza batzuei buruz gabiltza; esaterako, debutatzen duten pilotarientzat soldata minimo bat. Prentsaurrekoan beste adibide bat ipini genuen: pilotari batek 23.000 euro kobratu dezake eta hori soldata duin bat izan daiteke, baina beti ere hori dena poltsikora badoa. Baina gasolina dela, materiala dela... 10.000 euro joaten badira, zertan geratzen da? Eta, gainera, eskulibotasuna eskatzen dute. Duintasunari buruz nabileanean, horrelako

ZALDIBARKO

IV. MENDI JARDUNALDIAK

AFORO MUGATUA: ESKATU SARRERAK
DOHAINIK LIBURUTEGIAN

Liburutegi zaharrean

1-8 URRIAK
18:30
BILBAO MENDI FILM FESTIVAL

5 URRIAK
18:00
SILVIA TRIGUEROS
TOR FILMA+ HITZALDIA

1 ABENDUAK
ALEX TXIKON
MENDI BILUZIA



Pilotarien eta antolatzaileen familia argazkia, martitzeneko aurkezpenean.

Arroitauregiren omenezko txapelketak punta-puntako pilotariak batuko ditu

Abadiñoko Tornosolo trinketeen jokatuko da eta gaur hasi eta urriaren 30era arte iraungo du

TRINKETEA • JOSEBA DERTEANO

Maiatzean hil zen Kepa Arroitauregi, baina bere memoriak bizi-bizirik iraungo du bere izena daraman txapelketa berriari eskerrak. Munduko Pilota Batzarrak, Tornosolo trinketeak eta Amankomunazgoak elkarlanean antolatu dute eta urrian zehar jokatuko da, Tornosolo trinketeen.

Txapelketa modalitate bitan banatuko da: paletan —gizonetan zein emakumeetan— eta esku pilotan. Gaurtik aurrera, barikuro izango dira jardunaldiak, finaleko

egunera arte (urriak 30). Partiduak 18:30ean hasiko dira. ETB telebista kanalak finalak eskainiko ditu.

"Punta-puntako" pilotariak etorriko dira, Tornosolo trinketeko Aitor Arabiourrutiak aurkezpenean esan zuenez. Ipar Euskal Herriatik Battitta Ducassou, Peio Guichandut, Peio Larralde eta Mathieu Ospital arituko dira esku pilotan. "Txapelketaren helburua zein zen esan genienean, prestu agertu ziren parte hartzeko. Gure helburua horixe zen, ahalik eta mailarik handieneko txapelketa antolatzea",

esan zuen Arabiourrutiak. Eskualdeko pilotariak ere parte hartuko dute: Arabiourrutiak berak eta Asier Aspuru esku pilotan, eta Itxaso Praderak paletan.

Gaurko lehenengo jardunaldian honako partiduak izango dira ikusgai: Irazustabarrena-Galdos / Espinal-Ardanaz emakumeen paleta goman, eta Garcia-Ardhoain / Es-lava-Purroy gizonen paleta goman.

Esku pilotan geroago hasiko dute txapelketa eta eguenetan izango dira partiduak. Urriaren 15ean jokatuko da lehenengoa,

eta Aspuru eta Larralde Ospital eta Ugarte izango dituzte aurkari; urriaren 22an jokatuko dira bigarrena. Arabiourruti eta Ducassou Ziarrustaren eta Guichanduten kontra arituko dira. Partiduetarako sarrerak doakoak dira eta gura duenak aurretik erreserbatu ditza-ke 627 14 18 45 telefono zenbakira deituta eta tornosolotrinketea@gmail.com helbide elektronikora idatzita.

Kepa gogoan

Hizlariak Arroitauregiren figura goraiatu zuten aurkezpenean. Pilotako modalitate guztietan, erakunde askotan, pilota eskoletan eta emakumeen pilota sustatzen egindako lana azpimarratu du Fernando Azkarate Munduko Pilota Batzarreko presidentea. "Beti edo-zertan laguntzeko prest zegoen", nabarmendu zuen.

Mireia Elkoroiribe Amankomunazgoko presidentea Arroitauregik trinketeen egindako lana gogoratu du: "Bera izan da trinketearen bultzatzaile nagusia Durangaldean, Bizkaian eta, esango nuke, Hego Euskal Herri osoan. Eskuko lehenengo txapelketa antolatu zuenean lau-bost bikote baino ez zeuden. 20 urte geroago trinketea indartsu dago eta argi dugu, neurri handi batean, bere lanari eta kemenari eskerrak izan dela".

Segurtasun neurriak

Elkoroiribek txapelketara begirako segurtasun neurri batzuk zerrendatu ditu. Edukiera %50era murriztuko dute, ikusleak sarre-ran ageri den eserlekuan jesarri beharko dira eta maskararen erabilerak derrigorrezkoa izango da.

Iurretako frontoiari Kepa Arroitauregi izena ipintzea onartu dute

Iurretako frontoiari Kepa Arroitauregi izena ipiniko diotela onartu zuten, eguaztenean, Iurretan egindako udalbatzarrean. Aho batez hartutako erabakia izan zen.

Mireia Elkoroiribe Amankomunazgoko presidentea erabaki hori aurreratu zuen aurreko egunean, Arroitauregiren oroimenezko txapelketaren aurkezpenean. Izan ere, bere sasoian herritarrek egindako eskaerak kontuan hartuta, aukera bi zeuden mahai gainean: Iurretako frontoiari edo Tornosolo trinketeari ipintzea bere izena.

Bestalde, Munduko Pilota Batzarreko presidentea den Fernando Azkaratek aurreratu du beste omenaldi bat antolatzeko asmoa dutela Arroitauregi gogoratzeko, baina gaur egungo egoera hobetu arte itxarongo dutela. "Gaur egungo egoera ez da egokia omenaldia gura dugun moduan antolatzeko, eta hobetu arte itxarongo dugu", azaldu zuen.



Jokaldia

Galdera bat

Eguzkiak dir-dir egiten du; zerua urdin, oskarbi dago. Bizitasuna sumatzen dut barruan eta indarrez ateratzen naiz etxetik. Prentsaurreko batera joateko deialdia jaso berri dut. Dendena euskara hutsean; Euskal Herrian izanda, gauzarik ohikoena. Autoa hartu eta pozarren abiatu naiz. Agerraldiaren tokira iritsi, eta guztiaren nondik-norakoaren txostena, euskara zuzen eta egokian idatzita eman digute bertaratutakoei. Batzuei muturra okertu zaie, egonezina adierazi nahian eta marmarka hasi dira. Hedabideen aurrera irten denak, lehen hitz batzuk gaztelaniaz egin ditu, kazetari batzuen haserrea baretu eta kontzientzia lasaitu guran edo. "Buenos días a todos, bienvenidos", honela hasi du berbaldia. Ondorengo ele guztiak, hasi eta amaitu, euskaraz; osteko itaunak eta ihardespenak bezala. Hori bai,



Alfons Arrio Monasterio
Kazetaria

Agerraldiaren tokira iritsi, eta txostena euskara zuzen eta egokian idatzita eman digute bertaratutakoei

Halako batean iratzargailu baten txirrina entzun dut. Errealitatearekin topo egin eta ametsa zela ohartu naiz

mahaitik altxatu aurretik beste keinu bat eskaini die mutur-okertuei: "Gracias a todos por haber venido". Horietako batzuk aitaren batean gerturatu zaizkio, gaztelaniaz erantzunen bat bilatu nahian. Protagonistak baietz, hitzak eskainiko dizkiela baina di-da batean izan beharko duela, beti bezala, astirik ez duelako. Hiru galdera ba-

karrik onartu ditu. Galdetzaileak haserre joan dira; euren lana ezin izango dute behar bezala bete. Bigarren mailako kazetari sentiarazi ditu gertakariak. Hizkuntza ofizial bati iseka egitea eta beraiei trufa egitea iritzi diote. Aitzitik, nik neuk egin ahalko dut. Baina halako batean, iratzargailu baten txirrina entzun dut; nirea ote? Zoritxarrez, horrela da. Ohetik jaiki, pertsiana igo eta euria barra-barra ari duela ikusi dut. Albo batera so, begirada ohe-mahaian dagoen liburu bati iltzatuta gelditu zait. Goizalde Landa-basoren "Korte bat, mesedez" dakusat. Errealitatearekin topo egin dut, dena ametsa izan dela ohartu naiz. Berrogei urteren ondoren, kazetari euskaldunok amesgaizto bat bizi dugu egunero. Ruper Ordorikaren kantutak batek esaten duen moduan "inork ez zidan esan, euskaldun izatea zein nekeza dan, hobe nuela hautatzea..."

DURANGALDE

Urgozo iturria

Zalantzarik barik, Zornotzako iturri-rik enblematikoen da Urgozokoa. Herriaren erdigunean dago, Zelaieta parkean. Zornotzarren nortasunaren ikur da. Haren irudia eta haren izena herriko hainbat eragilek darabilte. Besteak beste, Urgozo txirrindulari elkarteak eta izen bereko errugbi taldeak.



KO TXOKOAK?



Arrosarioaren Atea

Elorriko kale bakoitzari historia kutsua dario. Bertatik paseatzen duen iraganeko mendeetara bidaiatzen duen sentipena izaten du. Ez da harritzekoa. Kale-ertz bakoitzean bada ondasun kultural edo historiko bat. Horietariko bat da Arrosarioaren Atea. Alde Zaharrerako sarbideetarikoa bat da.



ETXETXO
G. INMOBILIARIA
F.J. Zumarraga, 11 - 946 814 049 • DURANGO
www.inmoetxetxo.com



AMBOTO
INMOBILIARIA
Sanagustinalde, 4 - 1 ezk. • 48200 DURANGO



Inmobiliaria del Duranguesado
Askatasun etorb. 10 • DURANGO • 946 816 666
www.inmoduranguesado.com
inmoduranguesado@gmail.com



Fernando Uribe
Barrenkalea, 15 behe • DURANGO
Tel.: 946 816 423 • www.fernandouribe.es



DURANGO 2 logela

DURANGO: 2 logela, komuna, sukalde handia eta egongela. Eguzkitsua. Etxe osoak kanpora ematen du. Berriztatua. C.E.E= F.

129.500€



DURANGO 3 komun 108 m²

DURANGO: Atikoa. Erdialdean. Terraza handiarekin. 108 m². 3 logela, komuna, sukaldea, despentsa eta egongela. C.E.E=F

220.000€



DURANGO 3 logela

MIKELDI: Pisu altua. 3 logela, komunak, sukaldea eta egongela. Igogailua. C.E.E.=E

160.000€



DURANGO 3 logela

ARAMOTZ AUZUNEA: 3 logela. Komun berria, sukaldea eta egongela. Berriztatua. Eguzkitsua. C.E.E=F

135.000€



IURRETA 3 logela 74 m²

IURRETA: 74 m². 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela handiak. Terraza. Igogailu berria. C.E.E=G

95.000€



IURRETA 2 logela

IURRETA: Alokairuan, erosteko aukerarekin. 2 logela, komuna, sukalde-jangela eta egongela. Terraza. Bizitza sartzeko moduan. Eguzkitsua. C.E.E=F

115.000€

//ETXEBIZITZAK SALGAI

DURANGO: Askatasun Etorbidea. Etxebizitza ederra. 135m². 4 logela, 2 komun, sukaldea eskegitokiagaz eta egongela. Garajea eta ganbara. Argitsua.

TRONPERRI: Pisu ederra. 4 logela. Garajea. Ganbara. Txoko eta terraza komunitarioa. Kokapen ederra.

MURUETA TORRE: Eguzkitsua. Ikuspegi ederrak. 3 logela, printzipala balkoiagaz, 2 komun, egongela eta sukaldea balkoiagaz. Garajea eta ganbara.

DURANGO: Jose Miel Barandiaran. Etxebizitza ederra. 3 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela. Garajea eta trastelekua. Durango erdian.

DURANGO: Komentukalea. 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Ganbara. Ikuspegi ederrak.

DURANGO: Hegoalde kalea. Eraikin txikia. 4 logela, 4 komun, txokoa, terraza eta lorategia. Ezin hobea.

ABADIÑO TORRESOLO: 3 logelako etxebizitza ederra. Guztiz berriztatua. Eguzkitsua. Etxe osoak kanpora ematen du.

ABADIÑO ETXEAZPIA KALEA: Pisu zabala, 3 logela, 2 komun, sukaldea balkoiagaz eta egongela. Ganbara. Garaje itxia aukeran.

BERRIZ Elizondo etxetalea: Pisu guztiz eguzkitsua. Egongela, jangela, sukaldea, 2 komun eta 3 logela. Garaje itxia aukeran.

BERRIZ: 3 logela, komuna eta egongela. Ganbara. Eguzkitsua. Merkea.

ATXONDO: 2 logela, komuna, sukaldea eskegitokiagaz, despentsa eta egongela.

LURSAILAK SALGAI

DURANGO: 2.360 m²-ko lursaila. Durangotik oso gertu. Zarratua eta zuhaitzekin. Eskaintza paregabea.

GAZTELUA: 10.000 m²-ko lursaila. Nekazaritza-lurra. Leku onean. Egokia.

IURRETA: 5 hektarea inguruko lursaila. Abeletxe bat egiteko aukeragaz. Sarbide ona.

//BASERRIAK ETA TXALETAK SALGAI

MENDEXA: Izkinako adosatu paregabea. Kokapen ederra eta oso ondo mantendua. la berria.

MAÑARIA: 3 solairuko etxe ederra. Herri erdian. Udaletxe ondoan. 160 m² solairu bakoitzean. Aukera ederra Mañaria erdian bizitzeko.

MAÑARIA: Baserrria salgai. Herrian bertan. 3.000 m²-ko lursaila. Bizitzera sartzeko moduan. Oso polita.

ELORRIO: Aldape auzoa. Baserrria berriztatuko. 3 hektareako lursaila. Prezioa: 115.000 €

MENDATA: Lamikiz auzunea. Bi bizitzako baserrria. Berriztatuko. Eguzkitsua. Prezio interesgarria.

DURANGO: Eraikin txiki ederra, izkinakoa. Guztiz jantzita. Estreintzeko.

//BULEGOAK ALOKAIRUAN

ABADIÑO

40 m²-tik gorako bulegoak. 350 €-tik hasita.

//GARAJE ITXIAK SALGAI

Durango, garaje itxiak salgai 25.000 €-tik aurrera.

//LOKALAK ALOKAIRUAN

Alde Zaharrean, hainbat tamainatako lokalak alokairuan. Etorri eta galdetu.

//LOKAL INDUSTRIALA SALGAI

MATIENA: 460 m²-ko lokala salgai. Bulegoa, komuna eta aldagela. Oso egokia.

www.inmoduranguesado.com



DURANGO 4 logela 79,13 m²

Aramotz. 79.13 m². Etxe osoak kanpora ematen du. 4 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Balkoia. Gas naturaleko berogailua. Ezin hobea norberak bere gogora ipintzeko. C.E.E:F

115.000€



DURANGO 70 m²

Antso Estegiz: 70 m², egongela, sukalde jantzia, komuna eta 2 logela. Berriztatua. (Gas instalazioa egitea falta da). Igogailua. C.E.E: E.

137.500€



DURANGO 8 logela 201,9 m²

Lariz Jauregia: 201.90 m². Hirugarren solairua, bi etxebizitzak osatua (8 gela, 2 sukalde, 2 egongela, 2 bainugela eta 2 balkoi). Hiru etxebizitza atera daitezke. Kanpo aldea. BERRIKUNTZAK BEHAR DITU. C.E.E: Bidean

220.000€



DURANGO 2 logela 67 m²

Sasikoa. 2 logela, egongela, sukalde jantzia eta komuna. Balkoia. Argitsua. 3m²-ko ganbara eta 28 m²-ko garaje itxia. Igogailua. C.E.E:E

239.000€



DURANGO 69 m²

Askatasun Etorbidea: Egongela, sukalde jantzia, komuna eta logela. 25 m²-ko terraza. Etxe osoak kanpora ematen du. 5 m²-ko trastelekua eta garajea. Igogailua. C.E.E:E bidean.

320.000€



BERRIZ 2 logela 78 m²

Gabiola: 3 logela, komuna berriztatua, egongela, eta sukalde jantzia. 2 balkoi. Etxe osoak kanpora ematen du. Egoera onean. C.E.E:G.

140.000€

//DURANGO

ALLUITZ KALEA: 4 logela, sukaldea, garbitokia eta 2 komun. Ganbara. Igogailua eta garaje itxia. **320.000 €**/E.E.E=E

AMBROSIO MEABE: 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela, balkoia, igogailua, ganbara eta garaje itxia. LEHEN 205.000 € / **ORAIN 198.000 €** / E.E.Z=E

ERRETENTXU: 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela, balkoia eta igogailua. **190.000 €** / E.E.Z=E Garaje itxia aukeran.

FRAY JUAN DE ZUMARRAGA: 3 logela, sukaldea, egongela, bulegoa eta komuna. Igogailua. **220.000 €** / E.E.Z=E

MURUETATORRE: 2 logela, sukaldea balkoiagaz, egongela eta 2 komun. Igogailua. Ganbara eta garajea **238.000 €** / E.E.Z=E

SANTIKURUTZ KALEA: Bi bizitzako etxea eraikitzeko 600m²-ko lurzoru. **640.000 €**

TXATXIENA: 4 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. 2 balkoi. Garajea eta trastelekua. LEHEN 390.000 € / **ORAIN 375.000 €** / E.E.Z=E

//ABADIÑO

ZELETABE: 3 logela, egongela, sukaldea eta 3 komun. Terraza. Garajea eta trastelekua. LEHEN 342.576 € / **ORAIN 278.000 €** / E.E.Z=E

URKIOLA AUZOA: 3 logela, sukalde-egongela-jangela eta 5 komun. Ganbara. Garajea. Lursailagaz. 285.000 € / **ORAIN 248.000 €** / E.E.Z=E

BERRIZ

BERRIZBEITIA KALEA: 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela eta balkoia. **120.000 €** / E.E.Z=F

ERROTATXO KALEA: 2 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Balkoia. LEHEN 95.000 € / **ORAIN 85.000 €** / E.E.Z =E

ERROTATXO KALEA: 2 logela, sukaldea balkoiagaz, egongela eta komuna. **100.000 €** / E.E.Z=G

LEARRETA MARKINA: 2 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Balkoia. **102.000 €** / E.E.Z=E

MURGOITIO KALEA: Etxebizitza bitan banatutako baserrria lursailagaz. **290.000 €**.

//IURRETA

AMILBURU MUSIKARIEN PLAZA: 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Terraza. Igogailua. Ganbara eta garajea. LEHEN 276.000 € / **ORAIN 265.000 €** E.E.Z=E

//MAÑARIA

ARRUETA AUZOA: Berreraikitze baserrria lurzoruagaz. **220.000 €**.

MATIENA

TXINURRISOLO: 3 logela, sukaldea, egongela balkoiagaz, bainugela eta igogailua. LEHEN 200.000 € / **ORAIN 168.000 €** / E.E.Z=F

TRAÑABARREN: 3 logela, sukaldea, despentsa, egongela eta bainugela. 2 balkoi. Igogailua. Ganbara eta garajea. LEHEN 220.000 € / **ORAIN 210.000 €** /E.E.Z =E

//OTXANDIO

ELIZABARRI: 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela, balkoia eta lonja **106.000 €** / E.E.Z=F

//ZORNOTZA

SAN PEDRO KALEA: 3 logela, sukaldea, egongela balkoiagaz eta komuna. Garajea eta ganbara. LEHEN 170.000 € / **ORAIN 160.000 €** E.E.Z=Bidean

//BERRIAK

ATXONDO 3 logela, sukaldea, despentsa, egongela eta komuna. 2 balkoi. Ganbara eta garajea. **160.000 €** /E.E.Z=G



Botikak

BARIKUA, 2 • 09:00-09:00

NAVARRO Artekalea 6 - **DURANGO**

MELERO, ROSA MARI
San Pedro 31 - **ZORNOTZA**

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte
poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

SARASKETA, DIEGO Luis
Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

IRUARRIZAGA, KARMELE San
Miguel 15 - **ZORNOTZA**

ZAPATUA, 3 • 09:00-09:00

ETXEBARRIA
Montevideo etorb. 2. - **DURANGO**

MELERO, ROSA MARI
San Pedro 31 - **ZORNOTZA**

09:00-13:30

BAZAN DIAZ Uribarri 5 - **DURANGO**

NAVARRO Artekalea 6 - **DURANGO**

BALENCIAGA
Ezkurdi plaza 8 - **DURANGO**

DE DIEGO Intxaurreondo 22. - **DURANGO**

CAMPILLO Montevideo etorb. 24 -
DURANGO

UNAMUNZAGA Muruetatorre
2C - **DURANGO**

LARRAÑAGA-BALENTZIAGA
Berrio-Otxoa 6 - **ELORRIO**

EGUREN, ISABEL
Trañabarren 15. - **ABADIÑO**

IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15
- **ZORNOTZA**

GUTIERREZ, IBAN Txiki
Otaegi 3 - **ZORNOTZA**

09:00-14:00

IRIGOIEN Bixente Kapanaga 3 - **IURRETA**

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte
poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

SARASKETA, DIEGO Luis
Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

DOMEKA, 4 • 09:00-09:00

BAZAN DIAZ Uribarri 5 - **DURANGO**

MELERO, ROSA MARI
San Pedro 31 - **ZORNOTZA**

09:00-22:00

SARASKETA, DIEGO Luis
Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

ASTELEHENA, 5 • 09:00-09:00

DE DIEGO Intxaurreondo 22. - **DURANGO**

SARASKETA, DIEGO Luis
Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte
poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

IRUARRIZAGA, KARMELE San
Miguel 15 - **ZORNOTZA**

MARTITZENA, 6 • 09:00-09:00

SAGASTIZABAL
Askatasun etorb. 19 - **DURANGO**

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea
5 - **ZORNOTZA**

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte
poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

IRUARRIZAGA, KARMELE San
Miguel 15 - **ZORNOTZA**

EGUAZTENA, 7 • 09:00-09:00

MUGICA Andra Maria 9 - **DURANGO**

SARASKETA, DIEGO Luis
Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte
poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

IRUARRIZAGA, KARMELE San
Miguel 15 - **ZORNOTZA**

EGUENA, 8 • 09:00-09:00

BALENCIAGA
Ezkurdi plaza 8 - **DURANGO**

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea
5 - **ZORNOTZA**

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte
poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15
- **ZORNOTZA**

Zorion Agurrak

ZORIONAK@ANBOTO.ORG • EGUAZTENEO 14:00AK ARTEKO EPEA

Zorionak, **Laia!** Irailaren 26an 7 urte egin zenduzan. Musu haundi bat etxekoen partez!

**GOZATU
GOZOTEGI-OKINDEGIA**

Ermodo, 11 DURANGO
Tel.: 946 201 663
gozatudurango@gmail.com
facebook: Gozatu Gozategia

Zorionak, **Ibai (820. alea)!** Hamabostean behin zotz egiten dugun tarta zuri egokitu zaizu. Oparia eskuratzeko txartela gura duzunean jaso dezakezu lurretako gure egoitzan: Bixente Kapanaga, 9 an.

Gaur, urriak 2, **Paulek** eta **Nahiak** 6 urte egiten dituzte. Zorionak amaren eta aitaren partez.

Iratik urriaren 1ean 19 urte egin zituen. Zorionak krabelin polit honi!

Eguraldia

ZAPATUA 🌡️ 14° / 10° ☁️

DOMEKA 🌡️ 16° / 10° ☁️

ASTELEHENA 🌡️ 15° / 10° ☁️

MARTITZENA 🌡️ 16° / 12° ☁️

EGUAZTENA 🌡️ 21° / 11° ☁️

EGUENA 🌡️ 14° / 12° ☁️

Seguros Bilbao
RUEDA BILBAO
ASEGURUAK
Jabier Rueda
Landako etorbidea, 1 DURANGO

ORDUTEGI BERRIA: Astelehenetik ostiralera, 9:00etatik 15:30era
Zenbaki hauetan emango diogu lehentasuna bezeroari:
946 20 27 10 / 688 86 11 37
Egunero eskainiko dizugu gure arreta ondorengo helbidean:
jrueda@segurosbilbao.com

GAER **DESINFEKZIOAK**

Mota guztietako intsektuak eta arratoiak hiltzen ditugu:
LABEZOMORROAK, INURRIAK, JANTZI-SITSAK, ARRATOIAK, ARKAKUSOAK, ERLEAK...

Iturriz, 42 - 2 ezk. - Tel./Faxa: 946 225 774 / 658 757 279 - BERRIZ



Aitzol Uriarte Ibarzabal
Estakua jogurtak
Mallabia | 1976

“Behi-esne ona lortzen ahalegintzen gara, horregaz jogurt ona egiteko”

Ettxeko behi-esneagaz jogurt naturala, marrubizkoa eta limoizkoa egiten ditu

MALLABIA • AITZIBER BASAURI

Estakua baserrian, etxean gobernatutako 17 behiek emandako esneagaz egiten dute jogurta. Durangaldeko denda txikietan saltzen dute eta salmenta zuzena bultzatzen dute.

Noiz hasi zinen etxeko behi-esneagaz jogurta egiten? Durangaldean bakarrenetarikoa izango zara...

Ez, zorionez ez! Etxanon Kepa Agirregoikoa ere egiten du, eta orain dela gutxi Elorrioren ere hasi dira. Urte bi izango dira proba egitera animatu nintzela. Betidanik izan dut lotura baserri munduagaz. Mutikoa nintzenetik, esne-behiak izan dituzte etxean gurasoek. Lehenengo, kalean saltzen zuten esnea, eta esne-zentralei gero. Jogurtagaz balio erantsia lortu dugu: bageni-

tuen lurrak eta behiak, inbertsio handirik egin barik, eta, ikasteko, gurasoak izan ditut maisu-maistra. Bada, daukagun lurrari egokitutako behi kopuru txikiagaz esne ona lortzen ahalegintzen gara, lurrean oinarrituta eta belarra ondo zainduta, horregaz jogurt ona egiteko. Zuzenean saltzen dugu jogurta. Izan ere, produkzioak lan handia eskatzen du, baina errentagarritasuna merkatuan lortzen da. Hilean 600-700 litro jogurt produzitzen dugu. Dena dela, boladak izaten dira. **Berton Bertokoa dinamikaren eskutik, bertako eta sasoiko produktuak eskaini eta bultzatzen dira. Estakua jogurtak, adibidez. Sasoiko eta bertako produktua gehiago baloratzen hasi garela uste duzu?**

Aldaketa bat egon dela esango nuke, jendea kontzientziatu egiten dela

eta zabaltzen joango dela. Bertokoa kontsumitzea, zelan ekoiztu den jakitea eta inguruko ekonomia sustatzea garrantzitsua da. Hala ere, asko kostatzen da ohiturak aldatzea, nigandik neugandik hasita. Presaka bizi gara eta aste osorako edo hama-bost egunerako erosketa egiteko joera dugu, saltoki handietan. Berton Bertokoa eta beste ekimen ba-

“Gure behien elikadurak bazka du oinarri, eta ez dugu batere botikarik erabiltzen

tzuk badabiltza gure kontsumo ohiturak aldatzen laguntzen. Eta ez bakarrik elikadurari dagokionez.

Koronabirusak tokikoa baloratzen lagundu digula uste duzu?

Konfinamenduan askok deitu ziguten produktuak etxera eramateko, eta dendetan ere asko saldu genuen. Baina joera hori jaitsi egin da. Durangoko merkatua ere gainezka egon zen bi-hiru astetan. Ez dakit zelan egongo den orain. Kontzientziatzeko balio izan du, bai, baina joera urte osora zabaltzea lortu behar da.

Zein da erronka aurrera begira?

Ekologikora pausoa ematea eta ontziak lantzea, plastikoa baztertzea. Esne eta gazta freskoa eskaini gura genuke eta leku gehiagotara heldu. Lan komertziala indartzea ere bada erronka.

Jogurtaren merkatua osoa zabala da. Zerk bereizten du Estakua?

Gertuko familia-ustategia da gurea. Behien elikadurak bazka du oinarri, eta ez dugu batere botikarik erabiltzen. Behi-esnea da jogurt on baten oinarria: lurraren oreka mantenduz, behiek ondo zaindutako belarra jatea da garrantzitsua.

Lauhortza

Ainhoa Olaso
Sopelana
Ikaslea



TINA

Errazagoa da munduaren amaiera imajinatzea kapitalismoaren amaiera imajinatzea baino.

Eta horrela sortu zuen Les Parasites kolektiboak “El colapso” telesaila. 2019an estreinatu zen Frantzian, eta Filmin plataformak pandemia garaian berriz ere pantailetara ekarri digu: krisi batek eztanda eginda, supermerkatuetako elikagaiak faltan, migrazioak eta zahar etxeak ageri zaizkigu, (fikzioan eta errealitatean). Kapitulu denetan helburu berdina: bizirautea.

Hogeita bi minutu inguruko zortzi kapitulu denboraldi bakar batean. Kolapsoaren jatorria azaldu gabe ere, etorkizun hurbilaren usaina dario trama osoari.

(Itxurakeria edo marketing kontua dela esango dute batzuek baina) Saileko kapitulu bakoitza plano sekuentzia bat izanda, kamera eskuetan, munduko kolapsoaren ondorengo egunetako zortzi momentu bizi ditugu narrazio denbora jarraikorrean. Tentsioa areagotu eta arreata milimetrikoki mantentzeko forma ederrean.

Istoria bakoitza ezberdina eta aldi berean elkarren artean harilkatuta, jendarte ordenaren amaieraren testuinguruan ere, indibidualismoa nagusitzen da pertsonaien artean.

Telesail frantsesak itxaropena galtzea eragiten duela kritikatu izan dute. Margaret Thatcherrek ezagun egin zuen kontzeptua datorrit burura orduan, TINA (There Is Not Alternative/ez dago alternatibarik: munduaren ordena mantentzeko beharrezkoa dela kapitalismoa, ez dagoela beste eredurik). Eta zein mundu mota aurkeztu beharko genuke gure istorioetan, pentsamendu neoliberal nagusi den garaio-tan?

Estetika gida

anboto



NUKLEO
ileapaindegia
946 582 996
Nizeto Urkizu, 14 behea
ELORRIO

Ile-apaindegia



IUNIK
ILEAPAINDEGIA

Antso Estegiz, 1
DURANGO
Tel.: 946 216 491